**KIROLA: ARRASATE-OÑATI LASTERKETAKO EMAITZAK /11**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko maiatzaren 16a • IV. urtea • 110. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**Goienka2a**
**'Argia' astekariak itxura berria izango du aurrerantzean**

**NATALE LANDA / ABOKATUA**
*"Europan arrazoia ematen badigute, hasiera baten, berriro egin beharko lirateke bozketak"* /12

**ANTZUOLA**
**Gerbasio Legorburu omendu du Euskadiko Txistulari Elkarteak** /9



MARIAN GONZALEZ

# Botikak, beharrezkoak bakarrik

Botiken erabilpen hobea egiteko plan pilotua abiarazi du Osakidetzak Oñatin. Euskal Autonomia Erkidegoan Oñatin bakarrik ipini dute abian plana, Oñatiko lau botiketan, hain justu ere. Helburua da botiken erabilpen hobea egitea, hau da, behar ditugunak bakarrik erosteko aukera izatea, dirua aurrezte aldera. Horretarako, hainbat sendagai bakarka ere salduko dituzte. Plan pilotu horrek sei hilabete iraungo du. Eta epe hori igaro eta gero ondorioak aterako dituzte. Eguaztenean ateratako argazkian, osasun sailburu Gabriel Inclán Oñatiko botikariekin.

**ASTEKO GAIA: HAUTESKUNDEAK AZTERGAI** /2-3

# Maiatzak 25: hauteskundeak, debagoiendarren ikuspuntutik

Maiatzaren 25eko udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak inoizko hauteskunde berezienak izango dira, hauteskundeon aurretik herri plataformen eta AuBren aurkezteko debekua dela-eta. Bada, horrek hainbat galdera pizten ditu, eta, horiei erantzuna eman nahian, Debagoieneko hamabi izen ezagunengana jo du GOIENKARIAk, euren iritzi bila. Idazle, kazetari, politikari ohi, kirolari, artista… Bakoitzak gai jakin baten gaineko gogoetak jakinarazi dizkigu.

# Bergarako Udalak oraingo astean aurkeztu du webgunea

Oraingo astean aurkeztu dute Bergarako webgune berria. *www.bergara-udala.org* idatzita aurkitu daiteke sarean. Bergarakoarekin, ibarreko bederatzi herrietatik zazpik daukate webgunea. Goienako telematika adarrak kudeatzen du Bergarako webgunea, Elgetakoa eta Eskoriatzakoa bezala. Bergarako webguneak Zope web aplikazioen zerbitzaria du oinarrian. /7









**ARRASATE**

## Onartu dute Garaia inguruko urbanizazio proiektua

Garaia Berrikuntza Gunearen proiektua zelan betetzen den ikusiko dugu laster. Udalak behinbehinerako onartu du Uribarri auzoa urbanizatzeko proiektua. Hortaz, besteak beste, Berrikuntza Gunea izango denera iristeko errepideak egiten hasiko dira burokraziak eskatzen dituen pauso guztiak bete eta gero. /9


DEBAGOIENA/4-7 • IRITZIA/8 • HERRIZ HERRI/9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/20-21 • SAILKATUAK/22 • BERRI-ZAKUA/23 • ZERBITZUAK/24 • DENBORA-PASA/25

# Hauteskundeak, ibarr

## Zer deritzozu maiatzaren 25eko hauteskundeen gaineko egoerari?

## Zelan baloratzen duzu alderdi politikoek aukeratutako estrategia?



**MIREIA GABILONDO**
**Aktorea / Bergara**

Lotsagarria da zer gertatzen ari den hauteskunde hauen atarian, sektore baten legez kanporatzearekin, eta nik uste dut horrek bakarrik deskribatzen duela nahiko ondo daukagun giroa…

Euskal Herriko jende asko eta asko aukera politiko barik utzi dute, eta asko ez gaude ados dauden beste aukerekin. Herren gelditu garela deritzot. Bestalde, egia da indar politiko berriak daudela, Aralar, esaterako; hortaz, ea zer gertatzen den horiekin eta ea zer ekar dezaketen! Neurri judizialei dagokienez, hori egin nahi zuten, eta azkenean egin egin dute.



**ELENA LAKA**
**Abokatua / Eibar**

Zuzenbideko Estatuaren euskarriak dira legearen nagusitasuna, botereen banaketa eta oinarrizko eskubide eta askatasunen bermea. Hauteskunde hauek gertatzeko legea Gobernuaren borondatearen adierazpen baino ez dute bihurtu. Botere judizialak exekutiboari men egiten dio, Zuzenbideak eskatzen dituen berme guztiei muzin eginez. Zapaldu egin dira auzi-prozedurak ezartzen dituen gutxienezko betebeharrak helburu zehatz bat lortzearren. Ondorioa izan da euskal herritarrek ordezkariak aukeratzeko eskubidea eta askatasuna zapuztu dela.



**AITOR ELKORO**
**Pilotaria / Elgeta**

Argi dagoena da maiatzaren 25eko udal hauteskunde hauek ez direla hauteskunde arruntak izango, ezohikoak izango direla. Alderdi batzuetako hautagaiek bizkartzainez ibili behar dute; beste alderdi batzuetakoak beldurrez daude aurkezteko… Hala ere, nabarmendu beharra dago batzuek, behintzat, euren botoa emateko aukera izango dutela; beste batzuek, ordea, aukera hori ere ez dute izango.

Oro har demokrazia falta sumatzen dut. Politikariei ahoa betetzen zaie *demokrazia* hitzarekin, baina egoera hau ez da demokrazia egoera normala.



**RAFA GÓMEZ**
**Zinegotzi ohia / Arrasate**

Gurako nuke, alde batetik, alderdi bat ez legez kanporatu izatea eta herritar horiek euren alderdiari botoa emateko aukera izatea; eta, era berean, alderdi horrek Euskadin bizi den biolentzia salatzea; bestela, kontu honek guztiak giro politikoa gehiago nahasten du, eta horrek kezkatu egiten nau.

Alderdiei dagokienez, PPk nahi du PSOE bere antzekoa den itxura ematea, eta hori ez da horrela; EAJk eta EAk betiko anbiguotasunarekin jarraitzen dute eta Ezker Batuak ezker abertzalera joan izango zitekeen botoa bereganatu nahi du.



**PILAR ETXANIZ**
**Zutik-ekoa / Antzuola**

Ohiko politikaren alderdi kezkagarrienak gorpuzten dira: denak dira bakezale, denek hitz egiten dute herri osoaren izenean, denak daude bere zerbitzura.

Alderdi bakoitzarendako berea da planteamendu koherente bakarra, nork bere buruan ikusten ditu gaitasun onenak eta eskaintza zintzoenak; besteenak, berriz, zakarrontzira botatzekoak balira bezala tratatzen dituzte. Nork berea ondo azaltzen baino denbora luzeagoa ematen du besteena ukatzen. Bozketa ugariago eta kanpaina gutxiago behar ditugu, eta kanpainako dirua eta lana beste zerbaitetan erabili.



**DIEGO MARTIARTU**
**Kazetaria / Arrasate**

Espainolak sukalderaino sartu zaizkigu, 'putxerazoa' fuel-oilez egosi eta mahai gainean jarri digute. Daukaten katxarreria mediatiko-judizial-poliziako guztia erabiliz, jo eta fuego dabiltza PP eta PSOE euren saltsa-maltsa gertatzen. Bien bitartean, batu beharrean, alderdi (ustez) abertzaleak lehen baino bananduago doaz hauteskundeetara, elkarren artean zelanbaiteko planto, boikot edo abstentzio masibo bat adosteko ezgauza. Eta gero zer? Putxerazoa zabaldu eta baba ustelak partitzen hasiko dira betiko merkatxifle zupopteroak? Erchancha eta ETB hasi dira putxerazotik jaten.






# ekoen ikuspuntutik

## Zelan ikusten duzu etorkizuna hilaren 25eko hauteskundeen ostean?



**JOSE ANTONIO ALTUNA**
**Alkate ohia / Arrasate**

Oso beltz eta oso ilun, horrela datorkigu etorkizuna. Halaxe ikusten dut nik, behintzat, tamalez. Udal hauteskundeon ondorengoko klima sozial eta politikoa gaiztotuta geratuko dira, lehenik eta behin, hauteskundeotan ezin izango direlako alderdi eta aukera guztiak aurkeztu eta lehian egon. Eta gainerako alderdi abertzaleek ezin izango dute gauza handirik egin, gaurko legeekin, ez dutelako modurik izango.

Euskal Herriak izan dezakeen etorkizunaz gogoeta egiten dudanean, egia esan, ez dut pentsatzerik ere nahi izaten zer gerta dakigukeen.



**JOSE LUIS ELKORO**
**Alkate ohia / Bergara**

Etorkizuna nahiko ilun ikusten dut hauteskundeen ostean. Herriko alde garrantzitsu bat kanpoan geratu da, eta hauteskundeotan izango den erantzunak ez du baliorik izango. Hau da, emaitza horiek balioko dute politikarien diskurtsoan eta erabileran, baina gezurrezkoak izango dira, ez dute errealitatea islatuko.

Horrenbestez, Euskal Herrian izugarrizko hutsunea geratuko da. Hutsune hori egoteak ekarriko ditu arazo larrienak etorkizunean. Herriaren proiektu bat modu horretara atzera botatzea oso tristea iruditzen zait.



**ANDRES ARLANZON**
**Zinegotzi ohia / Oñati**

Oso-oso txarto ikusten dut etorkizuna Euskal Herrian hauteskundeon ostean. Horren zergatia da, neure ustez, gauzak txarto egin direla. Guztiek jokatu dute modu okerrean, alderdi politiko guztiek. Hemen behar duguna da elkarrekin ondo konpontzea eta elkar ulertzea, eta ez da horrelakorik gertatu. Batak gauza bat dio, besteak aurkakoa… eta guk, herritarrok, ezin dugu horren aurrean ezertxo ere egin.

Egoera okerrera joan da orain dela bospasei urtetik hona. Lehen, gauzak ez zeuden hain beltz. Ez dago elkarrizketarik, eta horixe da, hain zuzen, behar dena.

## Kazetari moduan, egoera berezi honek zelan eragin du zure lanean?



**BEGO ZUBIA**
**'Gara' / Arrasate**

Neure lanean bereziki egoera honek ez du eraginik, nik ez dudalako alderdien jarraipenik egiten.

Hala ere, *Gara*-ko lankideon lan martxa ikusita, ez dago zalantzarik egoera berezi honek eragin handia duela kazetarion lanean. Hauteskundeak beti lan handiko garaiak badira, udal hauteskunde hauek, eskubide zibilen berma falta eta legez kanporatzea direla-eta bereziak dira, eta lan bikoitza dakarte: herri bakoitzeko egoera desberdina da, eta bakoitzaren jarraipena egin beharra dago. Batzuetan goizeko 9etatik gaueko 12etara jarduten dute lanean.



**MARIJO DEOGRACIAS**
**'Anboto' / Antzuola**

Joan den egubakoitzean Durangaldeko aldizkariaren albiste nagusia erabat atzeratuta geratu zen, argitaratu orduko, Auzitegi Konstituzionalaren erabakia tarteko.

Eta orain, berriz, propaganda politikoa dela-eta legez kanpo laga dituen AuBren eta herri plataformen iragarkiak argitaratzeak arazo legalak ekar liezazkiguke. Era berean, herririk herri zerrendaburuen talde argazkiak atera nahi genituen, baina legez kanpo daudenekin argazkirik nahi ez duenik ere agertu zaigu. Batek badaki zer gertatuko ote den hurrengo?



**JOKIN ZUBIA**
**EITB / Oñati**

Kazetarion lana ez da lehengo bera. Batez ere giroan sumatu dut aldaketa handiena: lehen ere ez zen giro normala, baina orain inoiz baino arraroago dago, azkenaldian gauza asko gertatu direlako –*Egunkaria*-ren itxiera, plataformen eta AuBren legez kanporatzeak…– eta zaila delako esaten noiz bukatuko den hau.

Egoera honek eragina du kazetariongan: gure lana zailagoa da. Alderdien adierazpen eta ekintza guztiek dute zelanbaiteko zerikusia legez kanporatzearekin eta egoera berezi honekin, edozein alderdi politiko izanda ere. Lankideongan ere inpresio bera sumatu dut.

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24
ZURE AMETSETAKO ETXEA!
TEMPUR
SISTEMA 2000
Presioa kentzen duen XXI. mendeko atseden hartzeko sistema

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

publidenak.
Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.
Edozein kopuru. Epe laburrak. Aurrekontuak konpromiso barik. Erakusketa zabala.
• Enpresetara bisitak
• Enpresa-opariak
• Promozioak
• Publizitate-artikuluak
• Gabonetarako otarrak
• Artikulu pertsonalizatuak
• Diseinua. Arte grafikoak.
• Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
• Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
• Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
• Trofeoak. Txapela bordatuak.
• Era guztietako errotuluak.
• Seinaleak, plaka ofizialak.
• Pankartak eta banderak.
• Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak
HELBIDE BERRIA:
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE
TEL.: 943 77 06 09 (4 linea)
FAXA: 943 71 23 77
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

M25 / GIPUZKOAKO ETORKIZUNA AZTERGAI

# Oraingoekin alderatuta, oso ezberdinak izango dira hurrengo Batzar



EAJ/EA

## Joxe Joan González Txabarri

**ZARAUTZ / 46 URTE / LEGEBILTZARKIDEA MADRILEN**

**HABEko zuzendari izandakoa 1984tik 1989ra bitartean eta Kultura sailburuorde Jose Arregirekin. 11 urte egin ditu Madrilen, EAJko legebiltzarkide. Antzuolar batekin ezkonduta dago.**

**Zelan baloratzen duzu AuB ezin aurkeztu izatea hauteskundeetara?**

Herritarren %15-17 ordezkatzen duen zerrenda jokoz kanpo uzteak normalizazio politikotik eta bake bideetatik urrundu egiten gaitu. Azken urteotan moduan, oraingoan ere hauteskundeetan irabazi nahi genion ezker abertzaleari.

**AuBk esan du hauteskunde egunean egongo dela.**

Herritarrei modu librean botoa ematen uzten badiete, ondo iruditzen zaigu.

**Zer eragin izango du AuBren legez kanporatzeak Gipuzkoako Batzar Nagusien osaketan?**

Hankamotz uzten ditu Batzar Nagusiak. Egoera honi aurre egiteko, saiatuko gara Foru Aldunditik oreka demokratikoak bilatzen. Gizartearen herri ordezkariak bere osoan hartzea nahiko genuke guk.

**Zein da EAJ/EA koalizioaren helburu nagusia hauteskunde hauetarako?**

Gipuzkoan gehiengo soziala osatzen duten indarrak elkarrekin jokatzea da asmoa. Europako iparraldeko herrien mailan jarri nahiko genuke Gipuzkoa, eta, helburu horiek bete ahal izateko, egonkortasun politikoa eta gehiengo nagusia lortu nahiko genuke batzarretan.

**Azaldu ezazu EAJ-EAren eskaintza datozen lau urteotarako.**

Batzar Nagusien egiteko politikoa azpimarratu nahiko genuke, horretarako bideak emanez. Bestalde, herritarren zergak batzeko moduak modernizatu nahi ditugu, errenta aitorpena egiteko moduak erraztuz. Horrez gainera, Gizartekintzako zerbitzuak herrialde aurreratuenen mailan jarri nahi ditugu. Eta, azkenik, kultura, gazteria, kirola, nekazaritza…, arlo horiei guztiei ukitu europarra eman nahi genieke, teknologia berriekin lotuz.

**Debagoienari dagokionez, proposamen zehatzik badaukazue?**

Gipuzkoa ez da Donostian hasi eta bukatzen. Hortaz, donostiarrek dauzkaten zerbitzuak Arrasaten, Elgetan edo Eskoriatzan ere eduki beharko lituzkete. Gipuzkoa hegotik, Arantzazutik beharbada, gehiago begiratu behar da Kontxako barandatik baino.

*“Gipuzkoa Arantzazutik gehiago begiratu behar da Kontxako barandatik baino”*



ZINEGOTZI IZANDAKOA TOLOSAN

## Inaxio Agirre

**DONOSTIA / 55 URTE / EUSKARA TEKNIKARIA**

**Donostiako Udalean euskara teknikari lanetan dihardu Inaxio Agirrek, AuBk Gipuzkoako Batzar Nagusietarako zerrendaburu aurkeztu duenak. Tolosako Udalean zinegotzi izandakoa ere bada.**

**Espainiako auzitegiek galarazi egin dizuete hauteskundeetara aurkeztea. Zelan baloratzen duzue hori?**

Oinarrizko eskubide zibil eta politikoak urratu dira. Erabakia oso larria da, Europa osoan parekotasunik ez duena. Hego Euskal Herriko gizarteari oso-osorik eraso egin diote.

**Hala ere, hauteskundeetan parte hartuko duzue. Zergatik?**

Gipuzkoan jasotako 32.000 sinadurek hori eskatu digutelako. Euskal instituzioak euskal herritarronak direlako, eta ez espainiarrenak; euskal erakundeek euskal herritarren borondateari erantzun behar dietelako. Eta, batez ere, gatazka konpondu, jokaleku demokratikoa eraiki, Euskal Herriaren eskubide guztiak irabazi eta elkarbizitza baketsua izan dezagun.

**Zelan hartuko duzue parte?**

AuBk egingo dituen bozka paperekin.

**Zelan baloratzen duzu PP, PSE-EE eta gainerako alderdien jokaera kontu honetan?**

PPk eta PSE-EEk ukatu egiten dute Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea, autodeterminazioaren eskubide unibertsala. Itun antiterroristaren bidez, geure herriaren nortasuna erasotzen ari dira. Euskal Herriari Aznarren errezeta faxista eskaintzen diote: legez kanporatzeak, *Egunkaria*-ren itxiera, torturak, irakaskuntza alorreko erasoak, hauteskunde zerrendako bertan behera uztea… Herritarren borondatea bortxatzen ari dira; *putxerazo* baten bitartez, *apartheid* politikoa ezarri nahi dute. Horren aurrean, eta Euskal Herri bezala erasotzen bagaituzte, Euskal Herri bezala erantzun behar dugu. EAJk eta EAk bozka abertzaleen arrantza alde batera utzi eta bizi dugun salbuespen egoera gainditzeko jarrera hartu beharko lukete.

**Zeintzuk dira Gipuzkoak dituen premia nagusiak?**

Alde batetik, oinarrizko eskubideen defentsa egitea; bestetik, justizian oinarritutako Gipuzkoa eraikitzea; hirugarrenik, herritarrek, gizarte eragileek eta herri mugimenduek instituzioetan parte hartzeko bideak izatea. Gipuzkoak aldaketaren motorra izan behar du.

*“Gure nortasuna erasotzen ari dira, eta horren aurrean herri bezala erantzun behar dugu”*



PSE-EE

## Miguel Buen

**ERRENTERIA / 55 URTE / ERRENTERIAKO ALKATEA**

**Gipuzkoako politikagintzako beteranoetakoa da: 14 urtez Errenteriako alkate eta beste hainbat urtean batzarkide. Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusiorde ere bada.**

**Gipuzkoako gobernuan egoteko bokazioarekin aurkezten da PSE-EE?**

PSE-EE gobernuan egoteko bokazioa duen alderdia da. Gizartea eraldatu nahi duen ezkerra ordezkatzen dugu eta gure politika jarduna erakundeetatik bideratu nahi dugu, aniztasunean, elkarbizitzan eta Estatutuaren garapenean oinarrituta.

**Zein izango litzateke Gipuzkoarendako gobernurik onena?**

Gure lurraldearen identitate-mosaikoa ondoen ordezkatzen duena, beti ere berdintasuna eta gizarte politikak bultzatuz.

**Zeintzuk dira Gipuzkoako PSE-EEren hauteskunde programaren ardatz nagusiak?**

Premia duten zaharrei laguntasuna eskaini, eguneko zentroak eta egoitzak bultzatu, oinarrizko errenta hobetu, arriskuan dauden adin txikikoendako laguntzak bultzatu… Gaztediari dagokionez, gazteen emantzipazioa ahalbidetzeko Foru plana egin, enplegua sortzeko eta etxebizitzak eskuratzeko laguntzak eskainiz; Informazioaren gizartea bultzatu; garapen jasangarriaren alde egin; A-8 autobidea handitu eta A-1a eraikitzen segi…

**Debagoienerako politika zehatzik?**

Eibar-Gasteiz autobidea eta Beasain-Durango korridorea amaitu eta gainerako errepideak hobetu. Bestalde, Deba arroan, garraio kontsortzioa sortu. Horrez gainera, aisialdirako gune handi bat egin eta garraio zerbitzu publikoa hobetu, batez ere gauez. Azkenik, Arrasateko CEI bultzatu.

**AuB ezingo da aurkeztu hauteskundeetara. Zer iritzi duzu horren gainean?**

AuBk Batasunarengandik aldentzeko aukera izan du, baina ez du hori egin. Bide beretik jarraitzea erabaki du. Edozelan ere, ez Juan Priede, ezta Froilan Elespe zinegotzi sozialistak izandakoak, ezin izango dira hauteskundeetara aurkeztu. Sozialistak izatearren hil zituzten. Eta ez Lopez de Lacallek, ez Pagazak eta ezta Juan Maria Jauregik ere, ezin izango digute botoa eman. Hauek ere, sozialistak izateagatik hil zituzten.

*“Gizartea eraldatu nahi duen ezkerra ordezkatzen dugu, gure jarduna erakundeetan bideratuz”*

# Nagusiak ▪ Garraio zerbitzu publikoak hobetu nahi dituzte politikoek



PP

## Regina Otaola

**EIBAR / 41 URTE / ABOKATUA**

**Azken agintaldian popularren taldeko kide izan da Gipuzkoako Batzar, Nagusietan. Horrez gainera, PPko zinegotzi da Eibarren 1995az gero. Euskadiko popularren zuzendaritza taldeko kide ere bada.**

**Maiatzaren 25era begira, zein da PPren helburu nagusia Gipuzkoako Batzar Nagusietarako?**

Gipuzkoako lurralde historikoaren protagonismoa eta erabakitzeko zein kudeatzeko ahalmena berreskuratzea. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzarekiko Gipuzkoaren mendekotasuna gutxitu eta burujabetza handitzea, lurralde dinamikoagoa lortzeko.

**Gipuzkoarako PPren hauteskunde eskaintza azalduko diguzu?**

Ekonomiari dagokionez, gipuzkoarrok diru baliabide handiagoak izan ditzagun, Ekarpen Lege berria egin nahi dugu. Bestalde, ez dugu nahi gipuzkoarrok beste edozein espainolek baino gehiago ordaintzea; enpresa txiki eta ertainei eta komertzioari arreta berezia eskaini nahi diegu… Azpiegiturei dagokienez, lurraldeak dituen premiak eta lehentasunak zeintzuk diren zehaztu behar da lehenbizi, eta A-8 autobideari dagokionez, doakoa izatea nahi dugu. Horretaz gain, bazterketaren eta pobreziaren aurkako plan bat egin nahi dugu.

**Debagoienarendako bereziki, zer eskaintzen du PPk?**

Garraio publikoaren sare integralaren diseinua egiteko borondatea daukagu, Debagoienaren eta gainerako eskualdeen komunikazio arazoak gainditze aldera. Horretaz gain, lurralde osoaren garapen orekatuagoaren alde egingo dugu lan, hiriburuan eta metropolian bizi direnak ez ezik, gipuzkoar guztiek izan ditzaten antzeko bizi kalitatea eta ongizate zerbitzuak.

**Gipuzkoarren zati garrantzitsu batek ezin izango du ordezkaririk izan Batzar nagusietan, auzitegi espainolek galarazi egin diotelako eskubide hori. Zer iritzi duzu horren gainean?**

Epaileen erabakia da. Edozein trikimailuz baliatuz, demokrazia suntsitu nahi dutenen aurrean geldirik ezin gara geratu. Hori ez gertatzeko daukagu Alderdien Legea eta lege hori eskuan erabaki bat hartu dute epaileek. Uste dut horixe dela Euskadin bizi garen guztion askatasuna lortzeko bidea. Ezin diegu utzi gure instituzioak manipulatzen. Hori ezin dugu onartu.

*"Jaurlaritzarekiko Gipuzkoaren mendekotasuna gutxitu eta burujabetza handitzea nahi dugu"*



EB-IU

## Jon Lasa

**DONOSTIA / 52 URTE / PSIKOLOGOA**

**Euskadiko Alderdi Komunistako kide izandakoa da Jon Lasa, eta 1991. urtez gero Ezker Batuko kide da. Donostiako zinegotzi izana da, baita Gipuzkoako batzarkide ere.**

**Zein helbururekin aurkezten da Ezker Batua Gipuzkoako Batzar Nagusietara?**

Gipuzkoarren arazo eta beharren araberako helburuak dauzkagu, baina momentuko egoera politikoa ikusita, gure helburu nagusia da integrazioaren alde eta hauteskunde hauek horrelako baldintzetan egiten diren azkeneko aldia izan dadin lan egitea; hots, mehatxupean bizi diren hautagaiekin eta hauteskundeetatik kanpo utzi duten eta hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik ez duen alderdi batekin egiten diren azkeneko hauteskundeak izan daitezen nahi dugu.

**Orain dela lau urteko emaitzak hobetuko dituzuela uste duzue?**

Horixe baietz. Indartsu sartuko gara Gipuzkoako Batzar Nagusietara; izan ere, egoera politikoa zeharo hondatuta dago, eta, egoera horretan, herritarrak hasi dira ikusten, beharbada, irtenbidea beste nonbait dagoela; bloketan sartu ez garenongan, herri hau bitan zatitu ez dadin ahalegintzen garenongan eta giza eskubideak eta herri honen borondatea errespetatuz, hemen denok daukagula tokia pentsatzen dugunongan.

**Debagoienerako zer proposatzen du Ezker Batuak?**

Nik uste dut garraio publikoa bultzatzeko ahalegin serioa egin beharko lukeela Diputazioak Debagoienean.

**Jaurlaritzan bezala, Gipuzkoan ere hiruko gobernua osatzea posible ikusten duzu?**

Hauteskundeak pasatu ondoren eta emaitzak ikusita, beti egongo gara prest EAJ-EArekin eta PSE-EErekin programak aztertzeko. Dena dela, azken urte hauetan EAJk eraman duen politikarekin ez gaude ados; horrela jarraitzen badute, zaila izango da gobernua osatzea.

**AuB hauteskundeetatik kanpo uztia zelan baloratzen duzu?**

Balorazioa oso negatiboa da; gizarteko sektore bati bere eskubide zibilak ukatzen zaizkiolako. Era berean, esan behar dugu plataformen bultzatzaileek hori ekiditeko zerbait gehiago egin zezaketela. ETArengandik ez desmarkatzeak eta zerrendetan Batasunako kide ohiak izateak zalantzan jartzen ditu plataformok.

*"Egoera politikoa ikusita, gure helburua da herrialde ezberdin baten alde lan egitea"*



ARALAR

## Iñaki Irazabalbeitia

**DONOSTIA / 45 URTE / ELHUYAR-KO IDAZKARI NAGUSIA**

**Trantsizio garaian EEko kide izana, azken bi hamarkadetan hainbat gizarte mugimendutan –Elkarrin, esate baterako– eta kirol eta kultura taldetan ibilia. Aralarko Berme batzordeko kide. Kimika Zientzietan doktorea da.**

**Zein helbururekin aurkezten zarete hauteskundeetara?**

Gipuzkoan, gutxienez, hiru batzarkide lortu nahi ditugu, talde propioa eratzeko. Bestalde, giza eskubideen errespetua, ideologia aniztasuna eta autodeterminazio eskubidea, hiru parametro horietan mugitzen den edozeinekin akordioak lortzeko prest gaude, baita gobernuan egotekoa ere, beti ere alde guztiek adostutako programa batekin.

**AuBri hauteskundeetan parte hartzea galarazi diote Espainiako auzitegiek. Zer iritzi duzu horren gainean?**

Alderdien Legea guztiz demokraziaren aurkako iruditzen zaigu eta Lege horren ondorioz etorri da Batasunaren, AuBren eta herrietako plataformen legez kanporatzea. PPk Euskal Herria egoerarik okerrenean nahi du, Estatuaren interbentzioa Euskal Herrian bermatzeko eta gure autogobernu maila eta abertzaletasuna suntsitzeko. Dena dela, ENAMek (MLNV) herrietako plataformak eratu dituenean, ez du bere esku zegoen guztia egin hauteskundeetan parte hartzea bermatzeko. Beste bide batzuk bazeuden.

**Zein da Aralarren eskaintza Gipuzkoako Batzar Nagusietarako?**

Maila politikoan, mezu garbia plazaratu nahi dugu: pertsona guztien, ideia guztien eta proiektu guztien defentsa beharrezkoak dira herri honetan, eta horretarako, elkarrizketan eta demokrazian sakondu behar dugu, bakea eta normalizazioa lortze aldera. Programaren ardatz nagusiei dagokienez, honakoak: garraio publikoak lehenetsi; Gipuzkoako trenbide sarea berregituratu eta Y grekoa baztertu; Beasain-Durango errepidea lehenbailehen egin; gure aiton-amonen ongizatea bermatu; familiak osatzeko baldintzak hobetu; inmigrazioa aukera dela eta ez mehatxua zabaldu; babes ofizialeko etxebizitza gehiago egiteko eta etxe hutsen alokairua bultzatzeko neurriak hartu; Udal aurrekontuetan herritarren parte hartzea bultzatu eta demokrazia parte hartzailea bultzatu; kultura egitasmoak eta euskararen erabilera areagotzeko programak bultzatu…

*"Pertsona guztien, ideia guztien eta proiektu guztien defentsa beharrezkoak dira hemen"*



XABIER URZELAI

AuBren jarraitzaileek eta hizlariek Gipuzkoako Batzar Nagusietarako boto-paperak erakutsi zituzten eguaztenean Arrasaten.

# Hauteskunde-paperak jendaurrean erakutsi ditu AuBk Arrasaten

*Gaur kontzertua antolatu dute 'Euskal Herria aurrera' lelopean*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Eguaztenean heldu zen Arrasatera ibilaldi izaera duen Urratsez Urrats ekimena, Euskal Herriko hainbat txokotatik pasatu ostean. Ekitaldi politikoan AuBko Inaxio Agirrek, Pernando Barrenak eta Marijo Altubek hartu zuten parte.**

Manifestazioa izan zen lehenengo Arrasateko kaleetan eta horren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundirako, Nafarroako Parlamenturako eta Oñatiko alkatetzarako AuBko hautagaiek Monterron parkean izan zen ekitaldi politikoan hartu zuten parte.

Hizlariek, zerrendak atzera bota dituzten arren, hauteskundeetara aurkezteko duten asmoa azpimarratu zuten eta bide batez herritarrei maiatzaren 25ean euren botoa emateko eskatu zieten. Bestalde, gainerako alderdiek euren botoak jasotzeko duten gogoa dela eta, haiendako berba gogorrak izan zituzten.

Hitzaldien amaieran bi eskalatzailek Monterrongo eszenatokian gora eskalatu eta pankarta bat zintzilikatu zuten; *Maiatzaren 25ean bozkatu AuB* zegoen idatzita pankartan. Gero, Monterronen batutako AuBren jarraitzaileek Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskunde-papertxoak erakutsi zituzten, eta horiek hauteskunde-mahaietara iritsi aurretik erretiratzeko dagoen asmoa salatu zuten.

Eguazteneko hitzaldi politikoaz gain, AuBk antolatu du beste ekitaldirik: gaur, egubakoitza, gaueko hamaiketan kontzertua egongo da Arrasateko Monterron parkean, *Euskal Herria aurrera!* lelopean. Tijuana In Blue, Sorkun eta Anger taldeek joko dute gaur gaueko kontzertuan.

## HAUTESKUNDEAK LABUR

### Bergarako Aralarrek bere programa aurkeztu zuen eguazten arratsaldean

Eguazten iluntzean, Miguel Altuna Institutuko areto nagusian, Bergarako Aralarrek Udalerako bere programa aurkeztu zuen. Iñigo Iñurrategi, Juan Martin Elexpuru, Ainhoa Larrañaga eta Rafa Sánchez Bergarako Udalerako hautagaiek azaldu zituzten programaren nondik norakoak. Ainhoa Larrañaga angiozartarra da zerrendaburua eta zortzi emakumek eta zazpi gizonezkok osatzen dute zerrenda. /A.I.

### PSE-EEko Arrasaterako alkategaiak bere programa aurkeztu zuen astelehenean

Arrasateko Udalerako PSE-EEko hautagaiek Udalerako prestatu duten programaren aurkezpena egin zuten joan den astelehenean; programa horretako puntu garrantzitsuenak dira auzoak konpontzea eta babestutako etxebizitzak bultzatzea, besteak beste. Bestalde, Udalean lan egiteko beste era bat ezarriko dutela azaldu zuten, egungo kudeaketa ilun eta okerrarekin bukatzeko. /A.I.

### Debagoieneko herrietan 550 bat metro panel jarri dituzte alderdien propagandarako

Aurreko asteko egubakoitzean hasi zen, ofizialki, hauteskunde kanpaina. Gaur egun alderdi politikoek batez ere komunikabideak erabiltzen dituzten arren, panelak ere jartzen dira kaleetan, alderdiek euren propaganda jar dezaten. Ibarreko herri guztiak kontuan hartzen baditugu 550 bat metro panel jartzen dira, nahiz eta urte batzuetatik hona geroago eta gutxiago erabiltzen diren hauteskundeetarako panelok. /A.I.

### Ibarreko hauteskunde-mahaietan 249 herritarrek egon beharko dute 25ean

Ibarreko bederatzi herriak kontuan hartuta, guztira 83 mahai jarriko dituzte. Mahai bakoitzean presidente bana eta bina bokal egongo dira; guztira 249 herritarrek lan egin beharko dute egun horretan, zozketetan halaxe egokitu zaielako. Arrasaten jarriko dituzte mahai gehien, 33, hain zuzen ere. Gutxien, berriz, Leintz Gatzagan eta Elgetan, mahai bana jarriko dute-eta herri horietako bakoitzean./A.I.

### Hauteskundeetako gastuetarako muga ezartzen die legeak alderdi politikoei

Biztanle bakoitzeko 0,09 euro bakarrik gasta dezakete alderdiek udal hauteskundeetarako. Probintzia mailan, berriz, gutxienez lurralde horretako herri erdietan aurkezten direnek beste 124.818 euro gasta dezakete. Bestetik, hauteskundeetako gastuengatik dirulaguntzak ere jasotzen dituzte: 10.000 biztanletik gorako herri erdietan, gutxienez, kandidatura aurkeztu eta ordezkariren bat lortzen dutenek biztanleko 0,18 euro jasoko dituzte./A.I.

ELKARTASUN BRIGADAK 2003

MEXIKO / KUBA

AURKEZPENA
BERGARAKO KULTURA ETXEAN
MAIATZAREN 22AN (EGUENA) 19:30EAN

IZENA EMATEKO EPEA:
Maiatzaren 5etik ekainaren 6ra arte

- Bergara: 943 76 21 48
- Bilbo: 944 79 07 03 (Mailonako galtzadak 1)
- Donostia: 943 28 65 04 (Iruresoro plaza, Egia)

Martitzen eta eguenetan 19:30etatik 21:30etara)

Komite Internazionalistak




Elkartasunez mundu berri baten haziak jorratu

# Aste honetan aurkeztu dute Bergarako webgunea: ‘www.bergara-udala.org’

*Laster, Debagoieneko zazpi herrik izango dute webgune ofiziala*

ENEKO AZKARATE

**Oraingo astean aurkeztu dute Bergarako webgune berria. *www.bergara-udala.org* ipiniz aurki daiteke sarean. Bergarakoarekin, ibarreko bederatzi herrietatik zazpik daukate dagoeneko webgunea.**

Goienako Telematika adarrak kudeatzen du Bergarako webgunea, Elgetakoa eta Eskoriatzakoa bezala. Aramaiokoa ere, laster sarean egongo dena, kudeatuko du Goienak. Aretxabaletako webgunerako, ostera, hainbat eduki pilatzen dihardu Goienak. Debagoieneko beste bi herriren webguneak ere, Arrasate eta Oñatikoak hain justu, aurki daitezke sarean. Oraingoz webgunerik ez duten herriak Antzuola eta Leintz Gatzaga dira.

Martitzenean aurkeztu zuten Bergarako webguneak Zope web aplikazioen zerbitzaria du oinarrian. Sofware librea esaten denaren alorrean emaitza komertzial onenetakoa eskaintzen duen aplikazioen zerbitzaria da Zope. Izan ere, Bergarako Udalak beste erakunde hauen azpiegitura berbera darabil webgunean: Frantziako Barne Ministerioa edo Austriako administrazioaren atari nagusia. Punta-puntako teknologiaz eta boladan dagoen aplikazioz egina dago, hortaz, Bergarako Udalaren webgunea.

Baina zer aurki dezakegu webgune horretan? Bada, era askotako informazio osatua, euskaraz eta gaztelaniaz. Esate baterako, Udalak berak sortutako edo herriarekin zerikusia duten hainbat albiste, aldioro berritzen doazenak; herriaren gaineko datu piloa, herriaren historia, geografia, biztanleria eta ekonomiaren gainekoak, besteak beste; herriko hainbat irudi, bergarar ospetsuen zerrenda euren bibliografia eta guzti, Udalak argitaratu dituen liburuen gaineko informazioa… Baita Udalaren funtzionamenduaren, Udaleko batzordeen eta azken erabakien gainekoak ere. Jakina, baita turismoaren gainekoak ere: herriko ibilbideak, jaien egutegia, ondare historikoa… Azpimarratzekoa da webgune berri horrek hainbat tramite etxetik egitea ahalbidetzen diela herritarrei eta azken berriak edo webgunean egindako aldaketak etxean jaso ditzaketela, ordenagailuan, posta elektronikoz.

*Goienak kudeatzen duen webgunean herriaren gaineko informazio mordoa aurki daiteke*




### Hauteskundeetan parte hartzearen alde

AuBri eta herrietako plataformei hauteskundeetara aurkeztea galarazi izana salatzeko protesta eguna deitu zuten egubakoitzean Hego Euskal Herrian. Hainbat kale bilkura eta manifestazio egin zituzten gure ibarrean; baita bi orduko lanuzteak ere. Arrasaten eta Bergaran manifestazio jendetsuak egin zituzten eguerdian eta Oñatin eta Aretxabaletan kale bilkurak udaletxe aurrealdeetan. Lanuzteak, bestalde, ez zuen jarraipen handirik izan. Arrasaten eta Bergaran, taberna eta denda batzuk itxi zituzten eta enpresa batzuetan ere egin zituzten lanuzteak eta kale bilkurak; beste askotan, ordea, ez zuen oihartzunik izan. /E.A.



### Omenaldi hunkigarria Gerbasio Legorbururi

Omenaldi hunkigarria egin zioten domekan, Antzuolan, Gerbasio Legorburu txistulari antzuolarrari. Euskal Herriko Txistulari Elkarteak, Antzuolako txistulari taldeak eta Antzuolako herriak egin zioten omenaldia Gerbasiori. Antzuolako bandera eta gutuna eman zizkion Udalak, eta zilarrezko domina, Txistulari Elkarteak. Era berean, aurreskua eta arkua egin zieten dantzariek, Herriko Plazan, omenduari eta haren familiakoei. /E.A.

ARGAZKIA: JUAN ANTONIO MIGURA

## BAILARAN LABUR

### Bi gazte hil ziren astelehenean, auto istripuan, Epeletik Kanpanzarrera bidean

Bi gazte hil ziren astelehenean, auto istripuan, Epeletik Kanpanzarrera bidean. Istripua 18:30ean gertatu zen: auto batek eta kamioi batek elkar jo zuten. Istripuaren ondorioz, 34 urteko Jaime Ortiz tolosarra hil egin zen eta Arantzazu de Bedialauneta 30 urteko arrasatearra larri zaurituta eroan zuten Debagoieneko eskualde ospitalera, baina ospitalera heldu eta berehala, hil egin zen. Istripuan 51 urteko beste gizon bat ere zauritu zen. /E.A.

Indonesiako altzariak

Erdi-prezioan!



**URRETXUn Udaberri kanpaina**
(maiatzaren 2tik ekainaren 30era arte)

ORDUTEGIA:
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara (astelehenetik zapatura)
eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)

**Indonesiatik inportaturik, zure etxerako mota guztietako tekazko altzariak**




Tel.: 943 72 53 26 • *www.lba-antic.com*

ULMA

ULMA C y E, Koop. E.

**OHIKO BATZAR OROKORRA**
**DEIALDIA**

Eguna: 2003ko maiatzaren 23a
Ordua: 15:00etan lehenengo deialdia eta 15:30ean bigarrena.
Lekua: Oñatiko Zubikoa polikiroldegiko pilotalekuan

GAI-ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONESPENARI BURUZKO TXOSTENA
2. 2002KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONESTEA, ETA 2003KO KUDEAKETA PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2002KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA, ETA HALA BADAGOKIO, ONESTEA
5. EMAITZEN BANAKETA
6. HEZKUNTZA ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEKO FONDOAREN (H.K.S.F) APLIKAZIOA
7. EKONOMI ARAUBIDEKO ESTATUTU-XEDAPENAK
8. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIAK
9. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
10. ESTATUTU SOZIALETAKO 28. ARTIKULUA ALDATZEA
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
12. ZAINTZA-BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
13. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
14. ULMA C Y E, KOOP. E. SOZIETATEAREN (SOZIETATE IRENSLEA) ETA TECNOLOGÍAS MECÁNICAS DE CONSTRUCCIÓN S.A. AKZIODUN BAKARREKO SOZIETATEAREN (SOZIETATE IRENTSIA) ARTEKO IRENSTE BIDEZKO BATEGITE-PROIEKTUA ONARTZEA
15. 2002KO ABENDUAREN 31N ITXITAKO BATEGITE-BALANTZEA ONARTZEA
16. HALA BADAGOKIO, ULMA C Y E, KOOP. E. SOZIETATEAREN (SOZIETATE IRENSLEA) ETA TECNOLOGÍAS MECÁNICAS DE CONSTRUCCIÓN S.A. AKZIODUN BAKARREKO SOZIETATEAREN (SOZIETATE IRENTSIA) ARTEKO IRENSTE BIDEZKO BATEGITEA ONESTEA
17. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ABENDUAREN 27KO 43/95 LEGEAREN VIII. TITULUKO VIII. KAPITULUAN ETA GIPUZKOAKO SOZIETATEEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO UZTAILAREN 4KO 7/1996 FORU ARAUAREN VIII. TITULUKO X. KAPITULUAN AURREIKUSTEN DEN ZERGA-ARAUBIDERA LOTZEA BATEGITEA
18. AHALMENAK ESKUORDETZAN EMATEA
19. GALDE-ESKEAK

OHARRA: Euskadiko Kooperatiben Legeko 24. artikuluaren arabera, jakinarazten da bazkideen eskura daudela, egoitza sozialean azter daitezen, urteko kontuak agertzen dituzten dokumentuak, emaitzaren aplikazio proposamena eta kanpoko kontu-ikuskaritzaren txostena.
Era berean, Euskadiko Kooperatiben Legeko 74. artikuluaren arabera, espresuki adierazten da bazkide guztiek eskubidea dutela bai egoitza sozialean proposatu den estatutu-aldaketaren testu osoa eta aldaketa horren txosten justifikatzailea aztertzeko, eta baita dokumentu horiek doan ematea edo bidaltzea eskatzeko.
Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek eskubidea dutela egoitza sozialean Euskal Herriko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeko 78. artikuluan aipatzen dituen dokumentu guztiak aztertzeko, eta doan bidaltzea edo ematea eskatzeko.

Oñatin, 2003ko maiatzean

# Zabalik



IDOIA ETXEBERRIA

## Mundu aldrebesa

**Donostiako albaitaritza denda bateko erakusleihoan txakur baten argazkia, eta azpian: "Bikote bila. Tiko dut izena, eta ezagutu egin nahi zaitut. Fox Terrier arrazakoa naiz, eta nire aitona-amonak Australiakoak ziren. Ez zara damutuko!". Harrituta ni, txakurrak ere pareja bila? Horren aldamenean, beste paper bat: "Mutil gazte, serio eta esperientziaduna eskaintzen da... (zer denda mota da hau?, nire artean) txakurrak paseatzeko (A!)".**

**Makina bat aldrebeskeria ikusten da bizitza honetan, pixka bat begiratuz gero. Adibidez, gorrentzat aparatuak saltzen zituzten denda baten lekuan musika tresna denda bat dago orain. Hori ere Donostian. Bizitzaren ironiak.**

**Baina begien bista-bistan ditugu beste makina bat aldrebeskeria, zentzugabekeria. Ez hain barregarriak, egia esan. Ironikoa da, esaterako, Bushek Batasuna terroristen zerrendan sartu izana: Ameriketako Estatu Batuetan ezin sartu, atxilotu egingo dituztelako, eta hemen pote bat hartzen, kalean. Eta papeleten kontua? Francoren garaian bezalaxe, ezkutuan ibili behar. Botoa ez al da ba sekretua? Botoa Shin Chani eman nahi badiot ere, zer?**

***Egunkaria* ere itxi digute, eta barre egiten dut, negar ez egitearren. Hemen ia dena da ilegala. Euskaraz hitz egitea debekatzea bakarrik falta da; euskara ETAk asmatu duela esatea. Eta auskalo zer gertatuko den hauteskundeen ostean; egoera aldrebesa seguru! Egunkari berria, berriz, hilabete barru izango da kalean, uzten diguten artean. Bestela, ez da lan txarra txakurrak paseatzea. Badakit non ipini iragarkia.**

**Gorrentzat musika egiten jarraituko dugu, herri aldrebes honetan.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Ion Agirre, espetxean noiz arte?

Maiatzaren 11n, gure herritarra den Ionek 22 urte espetxeraturik bete ditu, nahiz eta 1996az geroztik aske egon beharko lukeen.

Pentsatzen jarri gaitezen denbora guzti horretan zenbat gauza egin ditzakegun, lagunekin poteatu, ikasi, ligatu, lantegira edota mendira joan, kafe bat hartzeko geratu, kontzertu bat ikusi, afari goxo bat egin... Ioni, ordea, gauza hauek guztiak ukatu egin zaizkio. Eta horren ordez, ziega zikin eta ilun batetan preso jarraitzen du, bere oinarrizko eskubideak errespetatzen ez direlarik, eta beraien asmoa Ion suntsitzea izanik. Baina berak, ongi asko frogatu die duintasuna ez duela galduko eta horregatik borrokan jarraitzen du.

Hogei eta bi urte bizitza oso bat da, Arrasateko gazte askok adin hau izango dute (edota inguruan), eta hauentzat, beraien bizi osoa lau hormen artean igarotzea ia ezinezkoa dela irudituko zaie, baina zoritxarrez ez da horrela; izan ere gaur egun euskal preso politikoen egoera gero eta gogorragoa da. Espetxe zigorrak gero eta gogorragoak dira, gure senideek urte pilo bat igaro beharko dituztelarik espetxeetan sakabanaturik, gu kalean gaudenok zerbait egiten ez dugun bitartean. Borroka oso gogorrak darabilte espetxeetan (Valdemoro, Algeciras, Aranjuez, Curtis...) beraien oinarrizko eskubideak errespetatuak izan daitezen. Gu, kalean gaudenok ere zinez lan egin beharko dugu gure senideen eskubideen alde.

Eta oraingoan, lerro hauek aprobetxatuz esan nahi dugu Ion etxean nahi eta behar dugula. Ea datorren urtean ez daukagun berriz ere urtemuga hau gogorarazi beharrik.

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

## Hauteskunde ez demokratikoak

Uste dut susmopean dauden hauteskunde hauei eman dakieken izenlagunik bigunena dela ez-demokratikoena. Prozesu guztian zehar asko izan dira jarrera salagarriak, eta bai Espainiako exekutiboak eta epaitegiek, hainbat irregulartasun eta itxuragabekeria egin behar izan dituzte jardun koordinatu baten bidez makina bat herriplataforma eta AuB hauteskundeetatik kanpo uzteko.

Ez naiz luzatuko politikan ari diren gure herrikideek (ez guztiek noski) demokraziaren aurkako eraso honetaz eman dituzten iritziak errepikatzen, orijinaltasun aukerak oso gutxi direlako, eta gutun honen helburua beste bat delako.

Duela hiru urte (2000 garrenean) ikusi zuen argia Goiena izeneko egitasmoak, geroago garatu diren GOITB, GOIENKARIA, *sustatu.com* eta beste hainbaten oinarri izan denak. Prozesua gizarte ekimen bat izan zen, eskualdeko euskara elkarteek bultzatutakoa. Hala ere, bere hasieratik hainbat udal eta udaletan ari ziren hainbat pertsonen laguntza eta sostengua izan ziren egitasmoaren lehen euskarriak. Haiek gabe nekez ikusiko zukeen argia gerora, pertsona, instituzio eta alderdi abertzale guztien babesa jaso duen egitasmoak.

Geroztik, bi urte hauetan elkarlana funtsezkoa izan da, eta jardunean iritzi desberdinak behin baino gehiagotan agertu diren arren, baita tentsioak ere, gai izan ohi gara gauzak bere onera eraman eta proiektuarekin aurrera egiteko.

Gaur, guztiona den Goiena hau nekez sortuko zen zuen hasierako bultzadarik gabe. Horregatik, nire errekonozimendua Anjel, Edorta, Ino, Larraitz, Mireia, Xabier eta beste hainbati.

Adiorik ez, eta bidegabe kendu dizkizueten instituzioetatik ez bada, beste toki batzuetatik zuen laguntza eta sostengua izango dugun uste osoaz agurtu nahi zaituztet.

IÑAZIO ARREGI
Debagoiena

## Herri batzordeei

Joan den asteko Debagoieneko eskualdeastekariak irakurri ditut. Guztietan aipatzen da Euskarazko Komunikazio Taldea SArako akzio berriak saldu eta zenbat diru biltzeko asmoa dagoen.

Hilabete pasatxo da harpidetza egiteko helburua irakurri nuela. Baita dirua biltzeko materiala eta bonoak saltzen jarri zirela ere, baina kanpaina publiko hauen emaitzei buruz ezer gutxi ekarri du prentsak, eta ona izango litzakeela uste dut emaitzen datuak publikoari ematea.

Ekonomikoki sostengatzen duenak, ondorioen berri izateko interesa du eta baita eskubidea ere. Hau honela da entitateen kasuan eta baita herritarren kasuan ere.

JOXEMARI MUXIKA
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

## Egunkari berriaren akzioak salduko dituzte zapatuan plazan

Otsailean *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta gutxira, egunkari horren aldeko herri batzordea sortu zuten hainbat antzuolarrek; ordutik hona hainbat ekitaldi egin dituzte herrian.

Hala, bihar, zapatua, San Isidro feriarekin bat eginez, mahai bat jarriko dute herri batzorde horretako kideek. *Egunero*-ko langileek egunkari berria kaleratzeko proiektua abian jarri berri dute, eta egunkari horretako akzioak eta hainbat material salduko dituzte bihar. 10:00etatik 14:30era jardungo dute plazan. /A.I.

ARAMAIO

## Gaur, barikua, Pilota Txapelketa jokatuko dute gazteek Aramaion

Gaur, barikua, Lau t'erdiko ETB Kantxa sariaren barruan, pilota partiduak jokatuko dituzte 21:15ean pilotalekuan. Baina hori baino lehenago, Aramaioko Barea pilota taldeko pilotari gazteek txapelketa jokatuko dute.

18:00etatik 20:00etara jokatuko dituzte partiduok. Guztira bost: eskuz banaka Xabik eta Andonik jokatuko dute eta eskuz binaka honako bikoteek: Senar-Balantzategi / Raul-Ekain; Serrato-Ander Axpe / Rioja-Ruiz; Manex-Markel / Xabi-Ander López; eta Bingen-Iñaki / Asier-Aitor.

ELGETA

## Intxorta elkarteari egingo diote omenaldia danborradan

Dagoeneko hasi dira aurtengo jaietako danborradarako entseguak. Eta parte hartu nahi dutenek bihar dute azken eguna izena emateko.

Danborrada berezia izango da aurtengoa; izan ere, Elgetako himnoa joko dute lehen aldiz nagusiek eta umeek batera.

Danborradan urtero egiten dute omenaldia, eta aurten saria Intxorta elkarteari ematea erabaki dute. Elgetako elkarteetatik danborradako filosofia ondoen jaso duena delako aukeratu dute Intxorta./I.A.



MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Urteaga kalea itxita dago zapatuaz gero, Eskusarte harrobitik harriak jausten hasi zirelako; astelehenean, berriz, Urteaga 29ko bost familiak irtenarazi zituzten

Antzuola eta Bergara lotzen dituen errepidea, itxita dago. Egubakoitzetik zapaturako gauean hasi ziren erortzen harriak eta lurra harrobi zaharretik. Erorketak etengabeak direnez, Udalak bidea ixtea erabaki zuen. Era berean, harrobitik nahiko gertu dagoen etxeko –Urteaga 29– bost familiak irtenarazi zituen astelehenean. Familietako lau Ormazabal hotelean daude, Udalaren kontura, eta beste batek senitartekoenera joatea nahiago izan du. Erorketaren arrazoi garbirik ez dago oraindik: azken euriteek eragin ei duela diote, baita saihesbide berria egiteko leherketek eragin duela ere. Erorketaren arrazoien eta hartu beharreko neurrien azterketa Ikerlur enpresako geologo batek egiten dihardu, Udalak eskatuta. Gaur aurkeztekoa zen txostena Udalean./M.B.

OÑATI

# Irisgarritasun planaren lehen faseko lanak hasiko dituzte laster

Aurreko asteko osoko bilkuran erabaki zuten irisgarritasun planaren lehenengo faseko lanak enkantera ateratzea.

Plan horren helburua da herritarrek izan ditzaketen oztopo arkitektonikoak ekidin eta irisgarritasuna bermatzea. Planak herri osoa hartzen du bere barne; hau da, helburua da herri osoan egitea egokitzapen lanak.

Lehendabiziko fase horrek Etxaluzetik Olapotorainoko zatia hartzen du bere baitan eta hainbat lan egingo dituzte ibilbide horretan.

Fase horretan egingo duten aldaketa nabarmenena Olakuako autobus geltokiaren inguruan egingo dute; izan ere, zati horretan oinezkoek ez dute inolako pasabiderik ez babesgunerik. Automobilek dute lehentasuna gune horretan; planaren helburua oinezkoei lehentasuna ematea izanda, gune horretan hainbat aldaketa egingo dute: automobilei trabak jarriko dizkiete, geltokia errepidetik hurbilago jarriko dute eta supermerkatua dagoen aldera ezin izango da sartu geltokitik igarota.

Etxaluzetik Olapotorainoko bidean beste hainbat lan ere egingo dituzte: zebrabideei altura eman oinezkoei irisgarritasuna bermatzeko, espaloietan arrapalak egin, lurzorua aldatu itsuei erraztasunak emateko, zebrabide batzuk tokiz aldatuko dituzte toki egokian ez daudelako... Hilabete batzuk barru bukatuta egongo dira lanok. /A.I.

**Zertzelada**

**Lehendabiziko faseak Etxaluzetik Olapotorainoko zatia hartzen du eta hainbat lan egingo dituzte laster irisgarritasuna bermatzeko**

ARRASATE

# Garaia egitasmoa aurrera doa; urbanizazio proiektua onartu dute

Garaia Berrikuntza Gunearen proiektua zelan gauzatzen den ikusiko dugu laster. Dagoeneko, Udalak behin-behinerako onartu du Uribarri auzoa urbanizatzeko proiektua. Horrek esan gura du, besteak beste, Berrikuntza Gunea izango denera iristeko errepideak egiten hasiko direla burokraziak eskatzen dituen pauso guztiak bete eta gero.

Adibidez, Garagartzara bidean biribilgunea eraikiko dute, Garaiarekin lotunea egiteko. Horretarako, zenbait eraikin bota egin beharko dituzte. Gero, biribilgunetik gora errepide nagusi bat eraikiko dute eta horren bitartez egingo dituzte gainerako lotuneak. /U.M.



ARTXIBOA

**Laster hasiko gara ikusten Garaia proiektua zelan gauzatzen den.**

ARETXABALETA

## Bitoriano Aranburu parroko izandakoak urrezko ezteiak egin ditu abade

Aretxabaletako parroko izandako Bitoriano Aranburuk 50 urte bete ditu abade. Hala, urrezko ezteiak ospatzeko, joan den astelehenean, hilaren 12an, Gipuzkoako gotzain Juan Maria Uriarterekin egon zen Donostian. Ekitaldian, Bitorianoz gainera, urrezko ezteiak betetzen zituzten hamalau erlijio-gizon omendu zituzten.

Bitoriano Aranburu Aretxabaletako abade izan da azken 50 urteotan. Horregatik, elizbarrutiak ere omenaldi beroa egin gura dio. Baina hori ekainaren 15ean izango da. /A.L.

ESKORIATZA

## Umeek eta gazteek erabiltzen dute gehien euskara kalean

Eskoriatzako Udaleko Euskara Sailak aginduta, euskararen erabilera neurtzeko ikerketa egin zuen apirilean SEI elkarteak. Orduan jasotako datuak orain kaleratu dituzte, eta ikerketaren arabera, batez beste, %30ek egiten dute euskaraz. Umeak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta, beste herri batzuetan ez bezala, helduek euren artean oso gutxi egiten dute berba euskaraz Eskoriatzan. Benetako ondorioak, ostera, hemendik urte batzuetara bigarren kale neurketa bat egiterakoan aterako dituzte. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

## Toki Eder elkartea datorren astean zabaltzea espero dute

Urtarrilaren 11n Garro jauregiak su hartu zuenetik hona Toki Eder elkartea itxita egon da. Bada, langileek dagoeneko amaitu dituzte lanak, baina garbiketa lanak falta dira egiteko. Lanak egiten dituzten bezain azkar elkartearen ateak zabaltzeko asmoa dute batzordekideek. Ateko sarraila aldatu eta giltza berria banatuko diete elkarteko bazkideei. Batzordeko presidente Dorleta Elkorobarrutiak esan digunez, datorren astebururuan elkartea zabaltzeko moduan egongo dira. /A.G.

*Podiuma*

# Josu Zubikarai |FUTBOLARIA|

**Antzuolako futbolariak indartsu dabiltza ibarreko taldeetan. Martxoko jokalari onena Iban Unanue izan zen eta oraingoan apirileko futbolari onena ekarri dugu gure orrietara: Josu Zubikarai, Bergara taldeko antzuolarra.**

**Goiena saria lortu duzu apirilean. Denboraldi ona egiten ari zaren seinale izango da hori, ezta?**

Talde-lanak ondo egiten ari garen seinalea da. Hasieran erritmoa hartzea kostatu zitzaigun arren, gero hobera egin dugu. Taldea ondo dabil, eta saria ez dut nik bakarrik eskuratu, denon artean baizik.

**Taldeak apirilean emaitza onak lortu ditu. Sailkapenean zein postutan zaudete?**

Nahiko bolada onak izan ditugu denboraldian, segidan partidu asko irabazi ditugu. Orain, denboraldia amaitzeko bi partidu baino ez dira falta eta hirugarren tokian gaude.

**Mailaz igotzeko aukerarik badu Bergarako taldeak?**

Sailkapeneko lehena igotzen da mailaz eta bigarrenak promozioa jokatzen du. Postu horretan gelditzeko aukera gutxi daukagula uste dut, bigarren tokian dagoen taldea gugandik lau puntura dago-eta. Hortaz, zaila izango da datorren denboraldian hirugarren mailan jokatzea.



I.A.

Josu Zubikarai antzuolarrak lehen denboraldia du Bergaran.

**"Hirugarren mailan jokatzea zer den probatu gurako nuke, kategoria horretan maila hobea dago-eta"**

**"Golak zeinek sartzen ditun gutxienekoa da, talde-lan barik norberak bakarrik ezin du ezer ere egin"**

**Ikusten duzu zeure burua hirugarren mailan jokatzen?**

Bergara aurrez hirugarren mailan jokatutakoa da eta, nahiko larri ibili ostean, jaitsi egin zen. Jokoa ez ezik, futbol zelaiak ere ezberdinak dira, maila hobea dago. Edozelan ere, probatu gura nuke.

**Aurtengo denboraldian gol asko sartu duzu.**

Hamaika edo hamabi sartu ditut, baina taldean bada gehiago sartu duenik. Golak nork sartzen dituen gutxienekoa da; talde-lan barik norberak bakarrik ezin du ezertxo ere egin.

**Ondo jokatzen diharduzula ikusita, jaso duzu beste talderen baten eskaintzarik?**

Oraingoz ez, baina ez litzaidake inportako Bergaran jarraitzea. Lagun giro polita dago taldean, eta pozik nago bertan.

**Talde asko ezagututakoa zara. Bat aukeratzekotan, zein hartuko zenuke?**

Talde guztietan egon naiz gustura; bakoitzak berezitasun bat dauka: Urolan etxetik kanpo jokatzen nuen lehen aldia zen; Antzuolan, herrian bertan, lagunez inguratuta ibili nintzen; Eibarren ohorezko mailan jarduteko aukera izan nuen; eta orain, Bergaran, lagun giroan gustura nabil.

**Zer eman eta zer kendu dizu futbolak?**

Kendu, denbora besterik ez; eman, berriz, askatasuna. Eskolatik edo lanetik irtenda nekatu eta ondoren, lasaitu bat hartzeko modu egokia da futbolean egitea. Txikitatik jokatu dut eta gauza asko eman dizkit; batez ere, eguneroko errutinatik ateratzeko bide bat izan da

IRATI AGIRREAZALDEGI

# Aritz Berraondo pilotaria finalean

## Partidua maiatzaren 25ean izango da

**Antzuolako Aritz Berraondo pilotaria bigarren mailako finalerako sailkatu da eta azken partidua Kepa Peñagarikanoren aurka jokatuko du Zarautzen.**



Aritz Berraondo pilotaria.

Aritz Berraondo antzuolarrak Galartza VI.a pilotaria Mungiako finalaurreko partidu lehiatsuan kanporatu ostean, datorren maiatzaren 25ean Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan jokatuko den buruz buruko finalerako txartela eskuratu du.

Berraondok ondo daki eskuz banakako bigarren mailako finalean aritzea zer den. Izan ere, orain dela bi urte Xalaren aurka txapeldun izan zen. Oraingoan gogor egin beharko du lan, emaitza bera lortu nahi badu, behintzat.

Finala irabazten duen pilotariak, txapela jantzeaz gain, datorren denboraldian pilotari onenekin jokatzeko aukera ere lortuko du. Bigarrenak jaitsiera ligaxkako bigarren sailkatuaren aurka neurtu beharko ditu indarrak lehen mailan jokatzeko aukera izan dezan.

Finalera joan ezin duenak partidua telebistaz ikusi ahal izango du ETB 1en, zuzenean./I.A.

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Pasajes 0 - Aretxabaleta 0 / Aloña Mendi 4 - Anaitasuna 1 / Bergara 1 - Touring 1 / Segura 0 - Mondra 1

### ASTEKO JOKALARI ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Xabi Camino | (Aloña Mendi) | 3 puntu |
| 2. | Kepa Barbarias | (Mondra) | 2 puntu |
| 3. | Eric García | (Aretxabaleta) | 1 puntu |

1 
**Xabi Camino**
Aloña Mendi

2 
**Kepa Barbarias**
Mondra

3 
**Eric García**
Aretxabaleta

**Xabi Camino**
Gol aukera non, Xabik gol.

**Kepa Barbarias**
Atzealdean, lan polita egin zuen Kepak.

**Eric Garcia**
Liderraren zelaian, puntua lortzeak badu bai meritua.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 19 puntu |
| 2. | Gorka San Vicente | (Bergara) | 16 puntu |
| 3. | Xabi Camino | (Aloña Mendi) | 13 puntu |
| 4. | Eric García | (Aretxabaleta) | 10 puntu |
| 5. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 10 puntu |

1 
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra

2 
**Gorka San Vicente**
Bergara

3 
**Xabi Camino**
Aloña Mendi

4 
**Eric García**
Aretxabaleta

5 
**Josu Zubikarai**
Bergara

**Goienkaria**

*Kirolabur*

### BERGARA/FUTBOLA

Bergarako Aranzadi Ikastetxeko neskak Euskadiko Futbol 7 Txapelketan izango dira. Datorren zapatuan Arabako eta Bizkaiko talde onenekin lehiatuko dira. Joan den aste bukaeran Gipuzkoako finala Oreretako taldearen aurka 2-1 irabazita eskuratu zuten Euskadiko txapelketarako txartela, eta orain euren gaitasuna gainerako probintzietako futbolarien aurrean erakutsi beharko dute.

### TXIRRINDULARITZA/ARETXABALETA

Orbea taldeko Asier Atxa txirrindulari aretxabaletarra bigarren sailkatu zen joan den aste bukaeran jokatutako Abadiñoko proban. Helmugan lehenengo sartu zen txirrindulariak 37 segundoko aldea atera zion Atxari. Bestalde, Arizkungo Licores Ordoki lasterketan hirugarren izan zen Asier Atxa.

### BOLOAK/ELGETA

Elgetako bolatokian jokatu zen Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketako bosgarren kanporaketa. Asolako Beñat Gómez izan zen lehenengo eta haren ondoren sailkatu ziren Floreagako Gorka Etxaniz, Asola Berriko Jesus Maria Díez eta Anartz Esteban, Elgetako Angel Gallastegi, San Migeleko Javier Osoro eta Felix Gómez Asola Berrikoa.

### AUKEA SARIAK/ARRASATE

Eguaztenean banatu zituzten, Monterron jauregian, AUKEA 2002 sariak. Sariok Arrasateko kirolarien lana eskertzea dute helburu. Bakarkakoetan,Iban Galán karateka aukeratu zuten. 2002an Euskadiko txapeldun izan zen junior mailan. Bestalde, Debagoieneko Zikloturista Taldea izan da saritua taldeen artean.Talde horrek 25. urteurrena bete du. Eta Arriaran II.a pilotari ohiak aipamen berezia jaso zuen bere kirol ibilbidearengatik. 29 urtez izan zen pilotari profesional. Sari banaketaren ostean pilotaren gaineko mahai-ingurua egon zen.

# Arrasatetik Oñatira, 145 lasterkari korrika

## Iazko irabazle Aitor Uribesalgo izan zen Oñatiko helmugara iritsi zen lehenengo korrikalaria

**Arrasate eta Oñati arteko krosa izan zen joan den zapatuan, Oñatiko Laixan eta Egunkariaren Lagunak elkarteek antolatuta. Eguraldia lagun izan zuten proban parte hartu zuten 145 lasterkariek, eta, iaz bezala, aurten ere Aitor Uribesalgo iurretarra iritsi zen aurrena Oñatiko helmugara. Emakumezkoetan, Rakel Llamas donostiarra nagusitu zen.**

Arratsaldea gaztetxoen lasterketekin hasi zuten; ibarreko korrikalari asko hurreratu zen Oñatiko kaleetara, eurendako antolatutako ibilbidean korrika egitera.

Proba nagusia 18:30ean hasi zen Arrasaten eta 145 korrikalarien artean azkarrenak, Aitor Uribesalgok, 35 minutu inguru behar izan zituen helmugara iristeko.

Antolatzaileak oso gustura daude lasterketak izan zuen erantzunarekin. "Eguraldia lagun izan genuen eta ez zen inolako arazorik izan. Gainera, Oñatiko plazan ikusle ugari zegoen lasterketa amaieran", esan digute.

IRATI AGIRREAZALDEGI

| POST. | IZENA | ABIZENAK | DENBORA | HERRIA | KATEGORIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. | AITOR | URIBESALGO | 00:35:48 | IURRETA | SENIORRA |
| 2. | ROBERTO | RUIZ BALZA DE VALLEJO | 00:35:57 | GASTEIZ | SENIORRA |
| 3. | JOSE JAVIER | CUADRADO PELAEZ | 00:36:21 | ZALDIBIA | SENIORRA |
| 4. | J. ANTONIO | BLANCO MINAYA | 00:37:36 | ORDIZIA | SENIORRA |
| 5. | STEVEN | MACGREGOR | 00:37:41 | DONOSTIA | SENIORRA |
| 6. | JON | URIEN GOMEZ | 00:38:44 | ABADIÑO | BETERANOA |
| 7. | ALFONSO | IRAZUSTA BARANDIARAN | 00:39:00 | BILLABONA | SENIORRA |
| 8. | ARKAITZ | LETAMENDI ANDUEZA | 00:39:13 | OÑATI | SENIORRA |
| 9. | ANARTZ | ETXEBERRIA | 00:39:16 | LAZKAO | SENIORRA |
| 10. | NESTOR | LEJARRETA | 00:39:28 | ELORRIO | BETERANOA |
| 11. | YERAY | VARELA AMOR | 00:39:42 | OÑATI | GAZTEA |
| 12. | JOXE | MENDIOLA AYASTUY | 00:39:51 | OÑATI | SENIORRA |
| 13. | ERNESTO | LORENZO ALVAREZ | 00:39:57 | OÑATI | SENIORRA |
| 14. | ASIER | OSINAGA BEITIA | 00:40:02 | OÑATI | SENIORRA |
| 15. | GARIKOITZ | LASKURAIN ARRIETA | 00:40:10 | LEGAZPI | SENIORRA |
| 16. | SERGIO | MARTINEZ ALVAREZ | 00:40:13 | LEGAZPI | SENIORRA |
| 17. | AGUSTIN | GARCIA URTAZA | 00:40:18 | OÑATI | SENIORRA |
| 18. | JULIO | PASCUAL GONZALEZ | 00:40:45 | ZUMARRAGA | BETERANOA |
| 19. | JOSE R. | GUTIERREZ ZILLAURREN | 00:41:00 | ARRASATE | SENIORRA |
| 20. | RAQUEL | LLAMAS GAGO | 00:41:07 | OIARTZUN | SENIORRA |
| 21. | OSCAR | MOVILLA DIAZ | 00:41:07 | OIARTZUN | SENIORRA |
| 22. | ASIER | ARANBURU SAN PEDRO | 00:41:08 | ZUMARRAGA | SENIORRA |
| 23. | JOSE LUIS | IMAZ MENDIA | 00:41:31 | IDIAZABAL | SENIORRA |
| 24. | ROBERTO | ZURRO USABIAGA | 00:41:59 | BERGARA | SENIORRA |
| 25. | ASIER | NAVAS ELGEA | 00:42:14 | GASTEIZ | SENIORRA |
| 26. | VALENTIN | ARANZABE URQUIZAR | 00:42:16 | ANOETA | BETERANOA |
| 27. | ASIER | GOROSTIAGA URRUTIA | 00:42:24 | OÑATI | SENIORRA |
| 28. | ION | ARANZABAL EZPELETA | 00:42:35 | ELORRIO | SENIORRA |
| 29. | JESUS | MENDEZ RODRI | 00:42:36 | ZORNOTZA | SENIORRA |
| 30. | IBAN | GURIDI GOITIA | 00:42:46 | OÑATI | SENIORRA |
| 31. | FELIPE | AGIRRE ESNAL | 00:43:04 | ZUMAIA | BETERANOA |
| 32. | IMANOL | MOLINERO MENDIGUREN | 00:43:26 | OÑATI | SENIORRA |
| 33. | JOSEBA | ORTEGA | 00:43:31 | AZPEITIA | SENIORRA |
| 34. | MIKEL | LARREA ALAVA | 00:43:44 | OÑATI | SENIORRA |
| 35. | IKER | ETXEBERRIA ATXA | 00:43:53 | EIBAR | SENIORRA |
| 36. | JOSETXO | GOMENDIO RUIZ | 00:43:55 | AZPEITIA | SENIORRA |
| 37. | JEXUS | ZABALETA INZA | 00:44:37 | OÑATI | SENIORRA |
| 38. | RAMON | VARELA GENDE | 00:44:47 | OÑATI | BETERANOA |
| 39. | ARKAITZ | LIZARRALDE PADILLA | 00:45:14 | OÑATI | SENIORRA |
| 40. | JOXE M. | TAPIA ETXEBARRIA | 00:45:22 | ORIO | SENIORRA |
| 41. | JESUS | OLIVAR | 00:45:33 | ELORRIO | SENIORRA |
| 42. | IOSU | LETURIONDO ALTUBE | 00:45:37 | SORALUZE | BETERANOA |
| 43. | JOSEAN | KEREXETA LIZARAZU | 00:45:49 | BERGARA | BETERANOA |
| 44. | ENRIKE | ACUÑA GONZALEZ | 00:45:59 | EIBAR | SENIORRA |
| 45. | IÑIGO | UNANUE LARRAÑAGA | 00:45:59 | EIBAR | SENIORRA |
| 46. | MIKEL | MESONERO | 00:46:37 | URRETXU | SENIORRA |
| 47. | DAVID | CONDE MARTINEZ | 00:46:40 | ELGOIBAR | SENIORRA |
| 48. | ION | REVERT SANTOS | 00:46:41 | ELGOIBAR | SENIORRA |
| 49. | CARLOS | RIESCO PENAS | 00:46:42 | ANDOAIN | SENIORRA |
| 50. | LUIS MARI | URIBESALGO | 00:46:43 | ARRASATE | BETERANOA |
| 51. | IMANOL | LARREA LEIBAR | 00:46:45 | OÑATI | SENIORRA |
| 52. | CESAR | DIEZ SERRANO | 00:46:53 | ARRASATE | BETERANOA |
| 53. | FERNANDO | MUÑOZ RUIZ | 00:46:56 | ZORNOTZA | SENIORRA |
| 54. | JOKIN | IGARTUA | 00:46:59 | OÑATI | GAZTEA |
| 55. | ASIER | ZUBIA URKIOLA | 00:47:03 | OÑATI | SENIORRA |
| 56. | RODOLFO | PARRA RODRIGUEZ | 00:47:04 | ANDOAIN | SENIORRA |
| 57. | JABI | OSA ISASTI | 00:47:16 | OÑATI | BETERANOA |
| 58. | JOSE LUIS | BARRENA ARREGI | 00:47:17 | OÑATI | BETERANOA |
| 59. | ANDER | ANSUATEGI ORUNA | 00:47:27 | ARRASATE | SENIORRA |
| 60. | PERU | SAGARNA ELEXPURU | 00:48:27 | BERGARA | SENIORRA |
| 61. | LUCAS | ALBERDI AZKORBEBEITIA | 00:48:35 | ERMUA | BETERANOA |
| 62. | JOSE I. | BARINAGARREMENTERIA | 00:48:43 | OÑATI | BETERANOA |
| 63. | ERIZ | ZUMARRAGA AZKARATE | 00:49:16 | ARETXAB. | SENIORRA |
| 64. | GAIZKA | ARANBURU ERAÑA | 00:49:16 | OÑATI | SENIORRA |
| 65. | JOSEBA | LASAGABASTER | 00:49:32 | OÑATI | SENIORRA |
| 66. | JOSE IÑAZIO | GARIA | 00:49:54 | ARETXAB. | SENIORRA |
| 67. | JESUS MARI | JAUNTSARATS OTAL | 00:49:54 | EIBAR | BETERANOA |
| 68. | ION ANDER | ARAMENDI | 00:50:01 | OÑATI | SENIORRA |
| 69. | UNAI | UGARTE ETXEBERRIA | 00:50:03 | BERGARA | SENIORRA |
| 70. | ROSA | LASAGABASTER | 00:50:31 | ESKORIATZA | SENIORRA |
| 71. | JAVIER | ANSUATEGI ETXEBARRIA | 00:50:32 | ARRASATE | BETERANOA |
| 72. | ION | DIAZ AZKOLAIN | 00:50:32 | TOLOSA | SENIORRA |
| 73. | M. HAMED | ACHAHBAR | 00:50:33 | BERGARA | BETERANOA |
| 74. | JOSE C. | SERRANO FLORES | 00:50:45 | OÑATI | SENIORRA |
| 75. | ENEKO | ZUMALDE KORTABARRIA | 00:50:53 | OÑATI | SENIORRA |
| 76. | AMAIA | MAZORRIAGA | 00:51:08 | ELORRIO | BETERANOA |
| 77. | JOSE LUIS | GANGOITIA AZKARATE | 00:51:09 | ABADIÑO | BETERANOA |
| 78. | AITZOL | GURIDI ZUBIA | 00:51:12 | OÑATI | SENIORRA |
| 79. | IGOR | ARRESE MURGUZUR | 00:51:17 | OÑATI | SENIORRA |
| 80. | IBON | GARITANO | 00:51:19 | BERGARA | SENIORRA |
| 81. | ASIER | LASA ERLE | 00:51:32 | ESKORIATZA | SENIORRA |
| 82. | JOSEBA | LARRAÑAGA AZKOITIA | 00:51:44 | BERGARA | SENIORRA |
| 83. | ANDER | MADINAGOITIA | 00:51:56 | OÑATI | SENIORRA |
| 84. | ANA | ALZUGARAI GARCIA | 00:52:08 | USURBIL | SENIORRA |
| 85. | FERNANDO | ETXEZARRETA RUBIO | 00:52:08 | HERNANI | SENIORRA |
| 86. | JOSEBA | ZABALETA IGARTUA | 00:52:09 | OÑATI | SENIORRA |
| 87. | KEPA | LETURIA | 00:52:09 | BERGARA | SENIORRA |
| 88. | MIKEL | URIBETXEBERRIA | 00:52:22 | ARETXAB. | SENIORRA |
| 89. | PABLO | AREJOLALEIBA UGARTE | 00:53:07 | OÑATI | SENIORRA |
| 90. | ANDRE | ARRIBAT | 00:53:23 | FRANTZIA | BETERANOA |
| 91. | LUIS ANGEL | AGIRRE MUJIKA | 00:53:33 | TOLOSA | SENIORRA |
| 92. | RAFAEL | ALTUNA ERLE | 00:53:34 | OÑATI | SENIORRA |
| 93. | IBAN | PEREZ HERNANDEZ | 00:53:42 | OÑATI | GAZTEA |
| 94. | RUFINO | AYASTUY EGAÑA | 00:53:54 | OÑATI | BETERANOA |
| 95. | JOSE M. | ETXEZARRETA | 00:53:55 | GASTEIZ | BETERANOA |
| 96. | J. KARLOS | PASKUAL | 00:54:08 | OÑATI | SENIORRA |
| 97. | JON | URKIA KORTABARRIA | 00:54:24 | OÑATI | GAZTEA |
| 98. | AITOR | LENS MADINA | 00:54:25 | OÑATI | GAZTEA |
| 99. | MIKEL | MADINAGOITIA MARTIN | 00:54:25 | OÑATI | GAZTEA |
| 100. | IÑIGO | GURIDI ZALOÑA | 00:54:28 | OÑATI | SENIORRA |
| 101. | JOSE | NOGALES GERRA | 00:54:29 | ELGOIBAR | SENIORRA |
| 102. | JOSEBA | ZUBIA URKIOLA | 00:54:42 | OÑATI | SENIORRA |
| 103. | JULEN | IRIONDO | 00:54:43 | OÑATI | SENIORRA |
| 104. | ARANTZAZU | ERRASTI BASABE | 00:54:47 | ARRASATE | SENIORRA |
| 105. | ENEKO | GONZALEZ GURIDI | 00:55:10 | OÑATI | SENIORRA |
| 106. | ASIER | URZELAI | 00:55:11 | OÑATI | SENIORRA |
| 107. | IBAN | ORUETA MARKULETA | 00:55:26 | OÑATI | SENIORRA |
| 108. | AITOR | LAKA AIASTUI | 00:55:27 | OÑATI | SENIORRA |
| 109. | ALAZNE | OLAIZOLA | 00:55:28 | DONOSTIA | SENIORRA |
| 110. | JABIER | BIKUÑA OLALDE | 00:55:36 | OÑATI | BETERANOA |
| 111. | XABIER | GARITANO UNCILLA | 00:55:37 | OÑATI | SENIORRA |
| 112. | LUIS A. | ELORZA LASPIUR | 00:55:38 | OÑATI | BETERANOA |
| 113. | MIKEL | IRUSTA BARRENA | 00:55:39 | OÑATI | GAZTEA |
| 114. | MIKEL | ARRESE MONDRAGON | 00:56:25 | ARRASATE | SENIORRA |
| 115. | ORTZI | ARANA EZKURRA | 00:56:25 | ARRASATE | SENIORRA |
| 116. | IOSU | JUAN LLODIO | 00:56:26 | ARRASATE | SENIORRA |
| 117. | AINTZANE | URZELAI UGARTE | 00:56:45 | OÑATI | SENIORRA |
| 118. | IGOR | LURI BRAVO | 00:56:58 | ARRASATE | SENIORRA |
| 119. | ALEJANDRO | ALTUNA ELORTZA | 00:57:07 | ARRASATE | BETERANOA |
| 120. | MARIJE | VELASCO GARCIA | 00:57:08 | ARRASATE | SENIORRA |
| 121. | KARLOS | LASA ALBERDI | 00:57:12 | BERGARA | SENIORRA |
| 122. | FELIX | BIAIN PEÑA | 00:57:28 | OÑATI | BETERANOA |
| 123. | JULIAN | RODRIGUEZ GONZALEZ | 00:57:30 | BERGARA | SENIORRA |
| 124. | MARI KARM. | ISASTI AGIRRE | 00:57:32 | ELGOIBAR | SENIORRA |
| 125. | LIERNE | URZELAI | 00:57:35 | OÑATI | SENIORRA |
| 126. | MIKEL | GARITANO | 00:57:55 | BERGARA | SENIORRA |
| 127. | NEREA | FERNANDEZ BAKERIZA | 00:58:29 | ONDARRU | SENIORRA |
| 128. | XABIER | ALTUBE ORUETA | 00:58:29 | OÑATI | SENIORRA |
| 129. | AITOR | ZENITAGOIA ARRIETA | 00:58:31 | BERGARA | SENIORRA |
| 130. | IGNACIO | BELTRAN DE GUEVARA | 00:58:38 | ARRASATE | BETERANOA |
| 131. | ITZIAR | VITERI OROBENGOA | 00:58:50 | ARRASATE | SENIORRA |
| 132. | EÑAUT | URIARTE PALACIO | 00:59:28 | BERGARA | SENIORRA |
| 133. | JABI | ARRONDO | 00:59:30 | BERGARA | SENIORRA |
| 134. | ROBERTO | LANZ ALZELAY | 00:59:58 | LEGAZPI | SENIORRA |
| 135. | GORKA | BIKUÑA MTEZ DE ZUAZO | 01:00:23 | OÑATI | SENIORRA |
| 136. | ALAZNE | GURIDI IARZA | 01:01:02 | OÑATI | SENIORRA |
| 137. | ANGEL | SEGOVIA GUERRA | 01:01:03 | ARRASATE | SENIORRA |
| 138. | NEREA | TXINTXURRETA | 01:01:03 | OÑATI | SENIORRA |
| 139. | CRISPIN | VALDEZATE SALVADOR | 01:01:12 | ARRASATE | BETERANOA |
| 140. | AMAIA | AGIRRE BERGARA | 01:01:21 | OÑATI | SENIORRA |
| 141. | LOREA | GARDOKI BEITIA | 01:01:21 | ZUMARRAGA | BETERANOA |
| 142. | IMANOL | LERTXUNDI BADIOLA | 01:03:46 | ONDARRU | BETERANOA |
| 143. | JOSEMARI | ETXEBERRIA | 01:04:29 | LEGAZPI | BETERANOA |
| 144. | SAIOA | ALTUBE GARCIA | 01:06:06 | OÑATI | SENIORRA |
| 145. | JORGE | MANSO ESTEVEZ | 01:15:12 | ANDOAIN | SENIORRA |

Hemen
GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

AUTOENPLEGURAKO MOTIBAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO PLANA

HELBURU NAGUSIA
**Partehartzaileak motibatzea , autoenplegua egoera pertsonalaren eta lan egoeraren irtenbidetzat har dezaten. Horretarako, beraien esku dauden laguntzak eta programak ezagutzera ematea.**

**Eguna:** 2003ko maiatzaren 28an
**Ordutegia:** Goizeko 09:00etatik 13:00etara
**Lekua:** Zaldibar Ikastetxeako aretoa • Nafarroa Etorbidea 21 Arrasate
**Antolatzaileak:** Debagoieneko Mankomunitatea eta Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko Udaletako Enplegu Zerbitzuak.
**Partaidetza:** Dohainik • Plaza mugatuak

IZEN EMATEA BEHARREZKOA DA
• Debagoieneko Mankomunitatea • Garapen Ekonomirako Agentzia 943-79 30 90 (Rakel García)
• Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 79 09 00 (Marga Garmendia)
• Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 77 91 24 (Marije Unamuno)
• Oñatiko Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 71 80 06 (Jexux Mari Ugarte)





AINTZANE IRIZAR

# Natale Landa

ABOKATUA

# “Europan arrazoia ematen badigute, hasiera baten, berriro egin beharko lirateke bozketak”

## ESKUBIDE POLITIKOAK

**“Nik alegatu nuen puntu bat izan zen gauza bat dela alderdi bat legez kanpo lagatzea eta beste bat pertsona bati bere eskubide zibil eta politikoak ukatzea”**

## BOTO PAPERAK

**“AuBk eta plataformek boto paperak ateratzen badituzte eta herritarrek botoa ematen badute, ez dute balio juridikorik izango, politikoa baizik; baina hori ez da delitua”**

Auzitegiek hauteskundeetan parte hartzea galarazi dieten zazpi herri plataformaren abokatua dugu Natale Landa arrasatearra. Besteak beste, prozesuaren irregulartasunak salatu dituzte plataformen abokatuek. Prozesu juridiko konplexu horretaz berba egin dugu Natale Landarekin, sententzien nondik norakoak eta plataformen egoera juridikoa argitzeko.

AINTZANE IRIZAR

**Zein oinarri juridiko erabili dute Fiskaltzak eta Estatuaren abokatuak plataformak inpugnatzeko eta Auzitegi Gorenak, berriz, inpugnazio horiek ontzat emateko?**

Inpugnazioak egiteko erabili duten oinarri juridikoa izan da AuB eta herri plataforma horiek, zelabait, Batasuna, Euskal Herritarrok eta Herri Batasunaren jarraipen direla. Dena dela, nik uste dut prozesu osoa zelakoa izan den kontuan hartu behar dela. Bere garaian, Alderdi Politikoen Lege polemiko hura jaulki zen. Gero, Auzitegi Gorenean, Batasunaren, EHren eta HBren aurkako prozesu bat ireki zen eta, aurtengo martxoaren 27an, Auzitegi Gorenak legez kanpo laga zituen hiru alderdi edo koalizio politiko horiek.

Alderdien legeak esaten du lehengo alderdien jarraipena izango den alderdiren bat egongo balitz prozedura horren exekuzio fasean, alderdi horiek legalak diren edo ez epaituko dela.

**Zelan arrazoitu dute, bada, legez kanporatutako alderdi haien jarraipen direla?**

Hasteko eta behin, esan behar dugu guri ez digutela jakinarazi Fiskaltzak eta Estatuaren abokatuak jarritako inpugnazioak zer dioen, ezta erabili dituzten frogak ere. Sententzian esaten da Polizia Nazionalak froga batzuk aurkeztu dituela; badirudi, nonbait, hauteskundeen gaineko irizpideak zehazten dituen txostenen bat azaldu dela; sententzian ez da ezer gehiago zehazten, eta guk ere, jakina, ez dakigu ezer gehiago. Inon ez da esaten txosten horiek Batasunarekin direnik edo ez. Horrekin batera, esaten dute AuB eta plataformetako pertsona batzuk alderdi haietako kide zirela eta horrek baieztatzen duela jarraipena direla.

**Prozesuan irregulartasun asko egon direla adierazi duzue.**

Batetik, esparru prozesaleko irregulartasunak egon dira, hau da, formari dagozkionak, baina baita edukiari dagozkionak ere. Irregulartasun prozesalei dagokienez, aipatzekoa da, batetik, erabili duten mekanismoa; bazeukaten AuB eta plataforma horien aurka egiteko beste bide bat. Nahiago izan dute prozesu elektorala hastea; Alderdien Legeari heldu diote eta lege horretan oso epe motzak zehazten dira: bi egun eduki ditugu inpugnazioei erantzuteko, beste hiru Auzitegi Konstituzionalera jotzeko... Nire iritziz, efektu mediatiko eta politikoa lortzearren erabili dute mekanismo hori.

Bestetik, aipatzekoa da lehen esan dudana: abokatuoi edo ordezkari legaloi ez digutela eman inpugnazioen idatzia, eta are gutxiago eurek erabili dituzten froga dokumentalak. Gauzak horrela, lehendabiziko alegazioak itsu-itsuan egin behar izan genituen.

**Zer alegatu duzue errekurtsoetan?**

Nik alegatu dudan gauza bat izan da gauza bat dela alderdi politiko bat legez kanpo lagatzea eta beste gauza bat dela pertsona bati bere eskubide politiko eta zibilak ukatzea, nahiz eta, legez, pertsona hori kanporatutako alderdi horietakoren bateko kide izandakoa izan. Gainera, legez kanpo lagatako alderdi horiekin harremana duten pertsona batzuk egoteagatik, kandidatura osoa bota dute atzera. Bi aukera daude eskubide hori ukatzeko: batetik, bateraezintasun bategatik; bestetik, epai judizial batek pertsona horiek kargu publikoetarako gaitasungabetzea. Hortaz, lege espainiarraren arabera ere, pertsona horiek badute eskubidea beste alderdi batekin hauteskundeetan parte hartzeko; eta zer esanik ez, Europako Batasuneko legediaren eta nazioarteko legediaren arabera.

**Zelan baloratuko zenuke prozesu osoa?**

Oso lotsagarria izan da; izan ere, hemen oinarrizko eskubide bat dago jokoan, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea. Herritarrei hori kentzen baldin bazaie, Espainiako Estatuan zegoen demokrazia formal hori desagertutzat eman dezakegu. Oinarrizko legeen interpretazioak ahalik eta zabalena izan behar du, hau da, eskubide horren aldekoa. Kasu honetan, ordea, interpretazio zorrotza egin dute. Prozedura aldetik, izugarrizko defentsa-gabezia sortu zaigu, ez dugulako ezagutu ahal izan inpugnazioak zioena, ez dugulako frogen berri izan, oso epe eskasak izan ditugulako...

**AuB eta herri plataformak legez kanpo utzi dituztela ere entzun dugu.**

Hori ez da horrela. Auzitegi Gorenak esan duen bakarra izan da plataforma horiek ezin direla hauteskundeetara aurkeztu, ez ditu legez kanpo utzi. Kandidaturen inpugnazio baten ondoren hasi da prozesu osoa; hortaz, hauteskunde-legearekin erantzun behar izan diote. Ezin dute botorik eskatu, baina egiten dituzten jarduerak legalak dira.

**Hemendik aurrera, zein izango da abokatuon lana?**

Europako bidea irekitzeko aukera baloratzen dihardugu, hau da, auzi hau Giza Eskubideen Europako Auzitegira eraman nahi dugu. Azken baten, bagenekien Auzitegi Gorenak eta Konstituzionalak ez zigutela arrazoirik emango, bistakoa zen. Europako bidea ireki nahi dugu gertatu dena astakeria juridikoa iruditzen zaigulako. Plataforma horiek ezin izango dira hauteskundeetara aurkeztu, hori ezin izango dugu ekidin; baina Europan arrazoia emango digutela uste dugu.

**Zer lortu ahal da Europara jota?**

Arrazoia ematea eta esatea honek guztionek ez daukala inolako funtsik. Ez dut ausartegia izan nahi, baina arrazoia ematen badigute, hasiera baten, bozketak berriro egin beharko lirateke.

**Michavilak esan du balitekeela AuBren boto paperen zenbaketa debekatzea.**

Hemen bi kontu daude: esparru politikoa eta esparru juridikoa. Politikoki, Michavilak nahi duen guztia esan dezake AuBren eta plataformen gainean, baina, juridikoki, ezin du esan txartel batzuk ezin direnik atera. AuBk eta plataformek balio politikoa emango diote, baina juridikoki ez dute inolako baliorik izango. Baina hori ez da delitua. AuBk boto paperak jaulki nahi baditu, herritarrei banatu eta herritarrek euren borondatez boto paper horiek hautestontzietan bota nahi badituzte, egin dezakete, hori ez da delitua.

**Bukatzeko, politikoki, zelan baloratuko zenuke hau guztia?**

Alde batetik, EAJ, EA eta Aralar alderdiei dagokienez, lotsagarria iruditzen zait herri honetako esparru garrantzitsu bat, ezker abertzalea eta herritar asko, hauteskundeetan parte hartzeko eskubiderik gabe laga dituztenean horretaz aprobetxatzea. Hipokrisia politikoa iruditzen zait, euren burua hain demokratatzat dutenean.

Bestalde, kontuan hartu behar da, bere garaian, Espainiako Estatuak ezker abertzalearen aurka abiatutako apustu erresiboaren zati bat dela hau. Alderdi politikoak eta herri erakundeak legez kanpo lagatzea, hor dugu 18/98 sumarioa ere, orain Udalbiltzaren kasua daukagu... Hau beste zatitxo bat da, berriro ere ezker abertzaleari eta haren programa politikoari eraso egin nahi izan diote; azken baten, autodeterminazio eskubidearen bitartez independentzia eta sozialismoa lortzeko programa politikoari, nazioarteko legeen arabera, oso legitimoa dena.


HARAGIAKIN, S.L.
kalitatearekin konpromisoa,
EUSKAL OKELArekin konpromisoa
Haragiakin s.l.
EUSKAL OKELA
EUSKO LABEL
KALITATEA
CARNE DE VACUNO
DEL PAIS VASCO
Euskal Okela
Euskal Esne Bildotsa
HARAGIAKIN, S.L.
Oñatiko Hiltegia - Zubillaga Auzoa - 20560 Oñati - 943.716.321


Jantzi zaitez...
UNITED COLORS
OF BENETTON.
Maalako errabala 13 · ARRASATE · 943 79 92 76




**RENAULT Kontzesionarioa**

# AUTOBERRI

San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472
ARRASATE

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 16a

Kultura eta aisialdia

Maiatzaren 16tik 23ra




Ezkerretik eskumara, Garbiñe Ubeda diseinatzailea, Xabier Letona zuzendaria eta Komunikazio Biziagoa SALeko presidente Joxe Mari Irazusta, *Argia* berrituaren aurkezpenean.

# ARGI BERRIA

**Aste honetan kaleratu da Euskal Herri osorako informazio orokorreko astekariaren beste zenbaki bat, baina ez da zenbaki arrunta; izan ere, ARGIA ASTEKARIA hemendik aurrera izango duen itxurarekin aurkeztu zuten arduradunek martitzenean: bere betiko izaerari uko egin barik, freskoago, modernoago eta arinago datorkigu aldizkaria.**

Berria barik, berritua: horrela definitzen du Xabier Letona *Argia*-ko zuzendariak zein izan den euskal kazetaritzako mugarri den aldizkari horren aldaketaren zentzua. Halaxe adierazi zuten arduradunek joan den martitzenean, hilaren 13an, egin zuten aurkezpen publikoan, Donostian.

Aro berri honetako *Argia* aldizkariaren lehen zenbakiaren azalari begiratuta antzeman dezakegu bere aldaketen ardatz nagusiak zeintzuk izan diren.

Alde batetik, itxura, irakurlearengana lehen begiradan iristeko modua, aldatu dute. Xabier Letona mondragoetarrak Arrasate Irratiari egindako adierazpenen arabera, diseinu aldaketa horrekin hainbat helburu bete dituzte: alde batetik, estetika hobetzea; eta, bestetik, diseinu modu berriarekin edukien antolakuntza hobetzea.

Beste aldaketa nagusi bat edukiei emandako pisuan datza. Azalean ikusten denez, gaurkotasunak hartuko du nagusitasuna: oraingoan, herri plataformen eta AuBren legez kanporatzearen gaineko erreportajea eskaintzen du *Argia*-k, hauteskundeen atari-atarian gauden une hauetan. Beste tankera bateko edukiek ere irabazi egin dute: kultura eta aisialdiak gehigarri propioa dute hemendik aurrera; eta, beste zutabe sendo moduan, iritzi saila. Kolaboratzaile berriak ditu *Argia*-k, maila handiko izenak, betiko moduan. Azalean iragarrita, Antonio Álvarez Solís kazetari madrildarraren artikulua; baina Debagoieneko ekarpena ere izango du *Argia*-k, Mikel Irizarren eta Jon Sarasuaren sinadura ezagunekin.

Lehengo irakurleen leialtasunari eutsiaz, irakurle berriengana iristeko harpidetza kanpaina jarri du abian argitalpenak. / **17** LEIRE KORTABARRIA

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: 'ARGIA'


Joxe Joan González de Txabarrirekin
Gipuzkoa beti aurrera.
Bozkatu eraginkor.
EA
eusko alkartasuna
EAJ PNV


Andoni Gartziarekin
Oñati beti aurrera.
Bozkatu eraginkor.
EA
eusko alkartasuna
EAJ PNV

**ARGITALPENAK/ 'ARGIA' BERRITUA AURKEZTU DUTE ASTE HONETAN**

# Betiko 'Argia', beste itxura batekin

DISEINUA ETA EDUKIEN ANTOLAKETA BERRITUTA AURKEZTU DU 'ARGIA' ASTEKARIA ZUZENDARIAK, XABIER LETONA ARRASATEARRAK

A. ARANBURUZABALA / L. KORTABARRIA

**A*rgia* aldizkariak 1899. zenbakia bete du, eta ez edozelan: bere izanari eutsiz, itxura eta egitura berritu ditu. Joan den martitzenean izan zen aurkezpena. Xabier Letona zuzendariari Arrasate Irratiak egindako elkarrizketan esandakoak batu ditugu hemen, besteak beste.**

Urak bide handia egin du 1919. urtean *Zeruko Argia* aldizkaria sortu zenetik. Formatu handian egiten zen orduan –hau da, egunkarien formatu berean. Hasiera baten erlijio kutsu handiko aldizkaria zen, garai hartako beste hainbat eta hainbat bezala. Urteak joan ahala, ordea, pluraltasunez jantzten joan zen aldizkari hori, eta gero eta irakurle gehiagori zuzentzen hasi zitzaion: hain zuzen ere, pentsaera zein irakurketa ohituren arabera berezitasunik egin barik, gaurkotasunaren gain euskarazko informazioa jaso nahi zuen irakurleari.

Ordutik hona 84 urte pasatu dira eta *Argia*-k, beste edozein hedabidek bezala, bere izaera garaiei egokitu behar izan die. Beharrezko aldaketa horien ildotik, arduradunek hainbat berritasun egin dituzte *Argia*-n, eta joan den martitzenean aurkeztu zuten bertsio berria, Donostian.

**AURRERA BEGIRA, IZAERARI EUTSIZ**

"Aldizkari berritua da, ez berria: betiko *Argia* da, hau da, informazio orokorreko Euskal Herriko nazio astekaria", esan dio argitalpeneko zuzendari Xabier Letona mondragoetarrak Arrasate Irratiko Aitziber Aranburuzabala kazetariari. "Egin duguna da astindu txiki bat eman, itxuraz eta mamiz. Itxuraz azalari astindu on bat eman diogu, XXI. mendera egokitu; eta mamia ere ukitu dugu, bai", azaldu du Letonak. Aldaketa horren helburua argi zuten arduradunek: "Alde batetik, bagenekien irakurleek moldaketa hori eskatzen zutela noizbehinka; eta, bestetik, guk geuk ere freskotasunean eta bat-batekotasunean irabaztea da gure helburua".

Aurrera begiratzea, betiko printzipioei helduz: hori da *Argia* aldizkariko lantaldeak egin nahi izan duena. Bestalde, arduradunek entzuna zuten, inoiz, *Argia serioegia* ez ote zen. Horrekin apurtzeko nahia ere izan dute? Honakoa dio Letonak: "Gure seriotasuna ei den hori apurtzea ez zen gure lehen asmoa, baina eredu berri honekin, koloreetan, izenburuetan, tartekien antolaketan… irabazi egin dugula uste dut, bai".

**HARPIDETZA, URTE OSOAN BARRENA**

*Argia* eraberritua kalean dela zelanbait ospatzeko eta aditzera emateko, harpidetza bultzatzeko kanpainari gogoz ekin diote aldizkariko langileek. Xabier Letona debagoiendarra denez gero, etxean izaten ari diren emaitzen gaineko iritzia azaldu digu: "Oso pozik gaude Mondragoen eta Debagoien osoan izaten ari garen harrerarekin; harpidetza eskari dezente jasotzen ari gara ibarretik".




60ko eta 70eko hamarkadak izan ziren erabakigarrienak *Argia*-ren ibilbidean eta bere apustuaren finkatzean. 1974koa da azal hori; 1976an, berriz, lehenengo itxuraldaketa izan zuen *Argia*-k.




1990eko azaroaren 25eko azala duzue irudikoa. Barne aldaketa eta modernizatze ikusgarrienak egiteke zituen oraindik aldizkariak. Hala ere, dagoeneko europar magazin estiloa zuen *Argia*-k.




Azken hamarkadan asko aberastu da *Argia*: gero eta gai eta elkarrizketa bariatuagoak, iritzi artikulu gehiago eta maila altuagokoak, *Larrun* gehigarria, kolorea… gehituz joan zen.




Aste honetan eman du *Argia*-k beste jauzi handi bat. Modernotasuna eta kalitatea dira estilo berri honen bereizgarriak. Gaurkotasunak, kulturak eta iritziak pisu handiagoa dute.

## Azala eta edukiak

**Bi motatako aldaketak ikus ahal izango ditugu *Argia* aldizkarian: alde batetik, diseinuari dagokionez, eta hori azaletik bertatik hasita egiaztatu ahal izango dugu: "Diseinuak zerbaiti erantzuten dio, eta diseinu mota berri honek lagunduko digu erreportaje bat, elkarrizketa bat, argazkiak… beste era baten ipintzeko eta estuasunarekin apurtzeko", dio Xabier Letona zuzendariak. Erakargarritasuna eta modernotasuna dira ezaugarri nagusiak, hortaz.**

**Beste alde batetik, edukiak, desberdinak ez izan arren, modu eraginkorragoan antolatu dituzte: "Gaurko gaiak sail baten kokatuko ditugu, eta asteko gaiek eta pertsonaiek garrantzi handia dute orain. Kultura eta aisialdia bereziki zaintzen ditugunez, hemendik aurrera bi gaiak batzen dituen gehigarri bat izango da, aldizkariaren erdian", azaldu du zuzendariak.**

**Kolaboratzaileen maila eta izen handia da *Argia*-ren beste bereizgarri bat, eta hori azpimarratzeko, orri finko bat eskaini diote iritziari, eta iritzi emaile gehiago agertuko dira.**



Atsedena hartzeko sistemarik hoberenak
beds
KOLTXOI DENDAK

%20arteko deskontuak!



• Atsedenean espezialistak
• Koltxoiak, kanapeak…
• Estalki, edredoi nordikoak…
• Ohe artikulatuak

ZARUGALDE 25 • ARRASATE • Tel: 943 77 18 35




SOINUZ BLAI

Musikarekin
busti nahi?

**Eguenetan eta egubakoitzetan,**
21:15ean.

Aurkezleak
**Maite Albes**
**Ugutz Usandizaga**

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*



**TRUKEAK/ BRETAINIAKO 45 GAZTEK ASTEBETE PASA DUTE GUREAN, ARIZMENDI IKASTOLAREN ESKUTIK**

# Bretoiak bisitari ibarrean

EUROPAKO BATASUNAK BULTZATUTAKO KULTURA TRUKE PROGRAMA BATEN BARNE IZAN DA BISITALDIA

LEIRE KORTABARRIA

**Euskal Herria ezagutzeko aukera debagoiendarron eskutik: horra hor Bretainiako 45 gaztek astebetez, joan den eguaztenera arte, gozatu zuten plana. Ikastolen Federazioaren Ikaskirola programaren barne egin zen bisitaldia, eta ibarreko Arizmendi Ikastola arduratu da guztiaz.**

Euskal Herriko hegoalde eta iparraldea ezagutzeko aukera aprobetxatu zuten Bretainiatik etorritako 45 nerabek. Maiatzaren 13ra arte, bost euskal lurraldetara egin zituzten irteerak, egunero bat, Bretainiatik etorritako 15etik 17 urtera arteko ikasle horiek; eta, Arizmendi Ikastolak hartu duenez ardura hori bere gain, gazteok gure ibarrean bizi ziren, eta hemendik abiatzen ziren txangoetara. Bidaiez gain, euskal gizartea eta kultura hobeto ezagutzeko aukera izan zezaten, denetariko kirol eta kultura ekintzak izan zituzten aukeran egunero.



ARIZMENDI IKASTOLA
**Maiatzaren 12an, datorren astelehenean, herri kirolak ikusteko eta praktikatzeko aukera izango dute 45 gazte bretoiek.**

**HARREMANAK, ZATI GARRANTZITSUA**

Ikastolen Federazioko Ikaskirola erakundeak antolatu zuen bisitaldi hori, Europako Batasuneko gazteek truke kulturalak egin ditzaten helburu duen programa zabal baten barne. Programa horren helburua da Europako kulturek elkar hobeto ezagutzea, horretarako, lurralde bakoitzeko joko eta kirol tradizionalak ardatz moduan hartuta.

Baina antolatzaileek beste helburu bat azpimarratu gura dute: "Horrelako bidaiak antolatzen direnean, nora joan eta zer bisitatu helburu nagusia bihurtuz, jendearekin harremana sortzeko aukeraren garrantzia txikitu egiten da. Izan ere, harremanak ez dira bakarrik sortzen, are gehiago nerabeen kasuan", diote Ikaskirola programako arduradunek. Hori dela eta, bretoiek Arrasateko familiekin pasa zituzten lau gau, binaka, euren adineko gazte debagoiendarren etxeetan; zapatutik domekarako gaua Bidarraiko aterpetxean egin zuten, Arizmendiko ikasleekin batera.

**EGUNERO, IRTEERA BAT**

Ez zuten aspertzeko unerik izan gaztetxook: maiatzaren 8an, Mendi Eguna, Nafarroa ezagutu zuten, eta Iparla mendira txangoa egiteko aukera izan zuten; hilaren 9an Donostiara joan ziren; 10a, zapatua, Pilota Eguna izan zen, eta Zuberoa bisitatu zuten; domekan Herri Urratsean hartu zuten parte Senperen; maiatzaren 12an, astelehenean, Herri Kirolen Eguna ospatu zuten Gasteizen; eta azkenik, maiatzaren 13an, martitzenean, Kultura Eguna, Gernikara eta Bilbora irteera egin zuten, eta Bake eta Guggenheim museoak bisitatu zituzten, beste leku interesgarri batzuen artean.

**NIREAUKERA**



**'ALMOST AN ISLAND'**
**Wolfstone**

**Wolfstone musika talde eskoziarra oso gustuko dut, eta iaz, kaleratu zuten diskoa gomendatuko nuke, euren zortzigarrena: *Almost an Island*. Talde horrek eskoziar folk estiloa lantzen du, eta euren disko berrian ohi baino erritmo biziagoak erabiltzen dituzte: gitarra, baxua, perkusioa… Abesti batzuetan, folka baino gehiago, pop estilo tankera hartzen zaie; hala ere, sustraiei eusten diete, Eskoziako musika tradizionalari; izan ere, taldeko lider Duncan Chisholm-ek eskarmentu handia du *highlands*-eko estiloan.**
/L.K.



**Xabier Agirre**

Antzuola, 27 urte, gitarra jotzailea. Patxi Saiz getariarrarekin diskoa grabatu du.

**KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Biografia




**RUFINO ARROLA**
**"VULKANOREN ATZAMARRAK"**

**Xabier Amuriza**
Trikitixa elkartea

Amurizak dio ondoen zein den Arrola sarreran: "Haren begi urdin-urdin, ia transparenteen begirada apur bat albokaran eta bizitasun agorgatxaren atzean, inozentzia baino zaharragoa dan malezia sometan zan, ondo begitu ezkero. Rufinoren aurpegikeran mailua eta zintzela bistan baegozan, ez dot uste adinaren tximurkereagaitik bakarrik zanik. Eta atzamarrak! Eskumako erpurua soinu hegalaren azpira ezkutetan zala, beste laurak ez eitekean pentsau burdinazko gantxoak ez ziranik, botoietan gora eta behera hain bizkor mogitzen ikusi ezean".

**DISKOA /** Narrazioa




**HIRU AHIZPA**

**Juan Kruz Igerabide**
Erein
69 orrialde

Hiru ahizpa amarekin bizi dira, laurak jostunak. Aita istripu batean hila dute, eta lana gogor eginez ateratzen dute bizimodua. Ahizpa gazteenak osasun-arazoak ditu txikitandik, eta etxe-medikuarengana joaten da sarri. Ikaragarrikeria bat gertatuko zaio gaixoari... Nobela labur honek amandre-ipuin bat ematen du, baina ez da; ipuin beldurgarri bat ere ematen du, baina ez da; ipuin errealista gordina ematen du, eta hori bada, baina ez hori bakarrik. Arretaz irakurtzen bada, inuzentziari eginiko kantu bat entzungo duzu. Hiru ahizpak eta ama bat bera dira.

**DISKOA /** Rocka



**HEDATUZ**

**R**
Metak
10 kantu

Aspalditik dabiltza musika egiten R taldekoak. *Hedatuz* lehen lan luzea da, hala ere.

Ia desagertzear egon eta gero datoz lan berri honekin. Diseinu landua, *digi-pack* formatu elegantea... Grabaketa landua da, nahiz eta etxeko estudio txiki batean egina dagoen. Eneko Bap-ek jardun du teknikari lanetan. Taldea sendo ageri da disko honetan eta badirudi gero eta konplikatuagoa dagoen eszena musikalean lekua izan dezakeela. Askorendako, lehendik izango dira ezagunak. Curriculumean dute, esaterako, Bilbo Hiria lehiaketa irabazi izana.

# Maiatzak 16-23

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### BERGARA

► ***Galtzagorri* txotxongilo saioa** eskainiko du Enkarni Genuak astelehenean, hilak 19, kultura etxean, 18:00etan. 4tik 10 urtera arteko umeendako saioa izango da.

### ELORRIO

► ***Tren de mercancías* antzezlana** egingo du Animalario taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.
► ***Hermosa gente* antzezlana** eskainiko du Pakidermo Teatro taldeak datorren egubakoitzean, maiatzak 23, Arriola aretoan, 22:30ean.

### OÑATI

► ***Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlana** egingo du Gorringo taldeak gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 20:30ean eta 22:30ean.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Oiartzungo Arditurri meategietara irteera** antolatu du Arrola elkarteak hilaren 18rako, domeka. Bestalde, hilaren 31n, Antzuola-Donostia ibilbidea egingo dute. Argibideetarako, jo elkarteko kideren batengana.

### ARRASATE

► **Debagoieneko fusilatuen senideen** batzordearen batzarra izango da astelehenean, maiatzak 19, Monterronen, 19:00etan. Eurek antolatutako erakusketa inauguratuko dute, eta hitzaldi bat ere izango da.
► **Helduen Hezkuntza Ikastetxeak** maiatzeko aurrematrikula epea zabaldu du. Horretarako, jo ikastetxera bertara, Ferrerias kaleko 28B-ra, edo deitu 943 77 11 72 telefonora.

### BERGARA

► **Moda desfilea** izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Jasotako dirua nesken futbol taldeari laguntzeko izango da.

### ESKORIATZA

► **Uda parterako hainbat irteera, udaleku eta egonaldi** antolatu ditu Gaztekantoi zerbitzuak. Garaioko aterpetxean egonaldia dago aukeran, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleendako; baita Orion kanpinean egun batzuk pasatzeko aukera, DBHko 3. eta 4. mailakoendako. Hogei gazte hartuko dituzte, gehienez, txanda bakoitzean. Izena emateko mugaeguna maiatzaren 30a izango da.

### OÑATI

► **Martxelo Otamendik, Euskaldunon Egunkariko zuzendariak,** hitzaldia egingo du datorren egubakoitzean, maiatzak 23, kultura etxean, 19:00etan, *Egunkaria*ren aldeko Oñatiko herri batzordeak antolatuta.

► **V. Kultura Jardunaldien barne,** hainbat ekintza antolatu ditu Elkar-Hezi ikastetxeak. Bihar, adibidez, ume txikiei masajeak ematen ikasteko jardunaldia hasiko da. Argibideetarako, deitu 943 78 28 70 telefonora.
► **Kantabria mendizerrara irteera** antolatu du Aloña Mendik hilaren 25rako. Izenemate epea maiatzaren 22an bukatzen da, eguena.

## LEHIAKETAK

### EUSKAL HERRIA

► **Gaztebideo Gazteen Bideo Amateurraren XI. Erakustaldia** antolatu du Indar gazte elkarte gasteiztarrak, eta interesa duen edozeinek bidali ahal izango ditu bere filmak. Baldintzak dira ikusle guztiendako egokiak izatea; 2002-2003 ikasturtean egindakoak izatea; 20 minututik behera irautea; sistema ez profesionalean izatea; eta aktore gehienak 21 urtetik beherakoak izatea. Mugaeguna uztailaren 31 da. Argibideetarako, deitu 945 28 61 42 telefonora edo idatzi gaztebideo@edunet.es helbide elektronikora.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **Gerbasio Legorbururen omenezko erakusketa** dago ikusgai bihar eta etzi, Olaran etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00.

### ARETXABALETA

► **Espainiako gerran fusilatutakoen** inguruko erakusketa ikusteko aukera izango da hilaren 20tik hasita, udaletxe zaharrean, 18:30etik 20:00etara.

### ARRASATE

► **Ramón Pérez** margolari bilbotarraren erakusketa dago ikusgai Arregi markoztatze dendan, hil osoan zehar.

### BERGARA

► **Emakumeen eskulanen** erakusketa ikusteko aukera dago etzira arte, domeka, kultura etxean. Ordutegia honakoa da: gaur, egubakoitza, 18:00-21:00; eta bihar eta etzi, 12:00-14:00.
► **VI. Abdon Juaristi margo lehiaketako** lanen erakusketa ikusteko aukera izango da datorren egubakoitzetik aurrera, hilak 23, ekainaren 1era arte. Ordutegia hauxe izango da: astegunetan, 18:00-21:00; eta zapatu eta jai egunetan, 12:00-14:00.
► **Irena Martínez** margolari bergararraren 15 lanen erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan, hil bukaerara arte.

### OÑATI

► **Etiopiaren gaineko** argazki erakusketa antolatu du Elkar-Hezi ikastetxeak. Maiatzaren 25era arte ikusi ahal izango duzue, kultura etxeko erakusketa aretoan. Sabin Osoro elgoibartarraren lanak dira.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Javier Arrillagaren** kontzertua izango da gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 20:00etan.

### ARRASATE

► **Tijuana in Blue, Sorkun eta Anger** taldeen kontzertua antolatu du AuB taldeak gaurko, egubakoitza, Monterron parkean, 23:00etan; eguraldi txarra izanez gero, Uarkapen. Txartelak hamar eurotan salduko dira.






► ANTZERKIA

## MODAREN GAINEKO ANTZERKI-KABARET ALAI BAINA ZORROTZA

Modaren gaineko antzerki-kabaret lana dugu *Neskapolitan*, datorren egubakoitzean Oñatin ikusteko aukera izango duguna. Zeintzuk diren hondartzarako modeloak, zeintzuk dantzalekurakoak… azalduko dizkigute antzezlaneko pertsonaiek; hori guztia, hainbat egile ezagunen abestiak eta filmetako soinu-bandak erabilita: Abba, 007, Odisea en el espacio, Hawaii 5.0, La Pantera Rosa… Umore ona eta ironia, horixe eskaintzen digute lan honekin Kasketa Kabareta taldekoek. Donostian sortu zuten taldea, orain bost urte, hainbat aktore, hari-idazle eta teknikarik. Lan honen bidez, emakumeen pentsamendu eta sentimenduak azaleratu nahi dituzte, era "lotsagabe eta alaian", eurek dioten bezala.

**Non:** Oñatiko Santa Ana antzokian. **Noiz:** maiatzaren 23an, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean.




## MARTXOAREN 3KO SARRASKIA SALATZEKO

1976ko martxoaren 3an Gasteizen izan zen sarraskia salatzeko erakusketa dago ikusgai Arrasateko kultura etxean, gaur, azken egunez. Marrazkilari, margolari eta artista ezagun askok hartu dute parte, tartean, bi debagoiendarrek: Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea arrasatearrek.

### BERGARA

► **S.A., Hamlet eta Jacky Trap** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.
► **Bertso musikatuak lana** eskainiko du Joseba Ramírezek eguenean, hilak 22, Zabalotegi aretoan, 19:00etan, udal euskaltegiak antolatuta.
► **Kamelot, Saratoga eta At Vance** taldeen kontzertua izango da datorren egubakoitzean, hilak 23, Jam aretoan, 19:30ean.

### ESKORIATZA

► **Amaraun jazz taldearen** emanaldia izango da gaur, egubakoitza, 22:00etan, gaztetxean, Axtroki kultura elkarteak antolatuta.

### OÑATI

► **Euskal abestien inprobisazioen kontzertua** eskainiko du Iñaki Salvador piano jotzaile donostiarrak etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean, Oñatiko XXV. Musikegunak programaren barne.

## JAIAK

### ANTZUOLA

► **San Isidro jaiak** ospatuko dira bihar, zapatua. 10:00etatik 14:00etara, artisautza azoka eta salmenta izango da. Iluntzera arte, beste hainbat ekintza izango dira.

### ARETXABALETA

► **Euskararen eguna** ospatuko dute bihar, zapatua. Dantzaldiak, musika emanaldiak, dastaketa, bazkaria… izango dira, besteak beste, Mitarte kalean. Udaletxe zaharrean, erakusketa ipiniko dute.
► **Otala Zelai erromeria** izango da etzi, domeka, 10:00etatik 20:00etara. Eguraldi txarra izanez gero, jaia Iturrigorrin egingo dute.

### ARRASATE

► **Corazon de Encina** elkarte extremadurarrak bere kultura astearen egun handiak ospatuko ditu bihar eta etzi. Bihar, zapatua, honako ekintzak izango dira: Extremaduraren inguruko bideo emanaldia eta Extremadurako produktuen dastaketa; gauean, afaria eta dantzaldia. Etzi, domeka, honako ekitaldiak egingo dituzte: plater tiraketa, Venta Frían; Extremadurako musika herrikoi emanaldia; mahai-jokoak; play-back emanaldia; Tarama taldearen emanaldia; eta sari banaketa.
► **Ikastolaren eguna** ospatuko du Arizmendik bihar, zapatua. Ibarreko Arizmendiko ikastola guztiek batera hartuko dute parte, lehen aldiz. Honako ekintzak antolatu dituzte: Laubiden eta herriko plazan, herri jolasak eta kirolak; Ferixalekuan, puzgarriak, txokoak, tailerrak… eta, 11:30etik 14:30era, gastronomia feria, herriko eta kanpoko hainbat talderen laguntzarekin.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***Mi vida sin mí***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***El efecto Iguazú***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Johnny English***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***Mi vida sin mí***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***El oro de Moscú***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Hércules***
Domeka: 17:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***El cazador de sueños***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Pacto de brujas***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik martitzenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.

***Evil dead***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***X-Men 2***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***En la oscuridad***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Mi mujer es una actriz***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 22:30.

***Sin motivo aparente***
Egubakoitzetik domekara: 20:00.

***Aquellas juergas universitarias***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Bully***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***No tengo miedo***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Taxi 3***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Ken park***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Frida***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***Aquellas juergas universitarias***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***En un lugar de África***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***La última noche***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 22:45.
Domeka: 17:15, 22:30.

***Besos de gato***
Egunero: 20:00.

***Ted Bundy***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Born romantic***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***En algún lugar de África***
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 22:00.
Domeka: 17:30, 20:15.

***Torremolinos 73***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

***Palabras encadenadas***
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.

***Cualquiera***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***La vida mancha***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***El lápiz del carpintero***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
589

■ **STER ZINEMAK**

***En la oscuridad***
Egubakoitza: 18:10, 20:00, 22:00, 00:10.
Zapatua: 16:20, 18:10, 20:00, 22:00, 00:10.
Domeka: 16:20, 18:10, 20:00, 22:00.

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza: 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***La prueba***
Egubakoitza eta zapatua: 20:35, 22:55, 01:15.
Domeka: 20:35, 22:55.

***Dog soldiers***
Egubakoitza eta zapatua: 22:50, 01:05.
Domeka: 22:50.

***Los rebeldes de Shangai***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:30, 00:55.
Domeka: 20:05, 22:30.

***Johnny English***
Egubakoitza: 18:05, 20:00, 21:55, 00:00.
Zapatua: 16:10, 18:05, 20:00, 21:55, 00:00.
Domeka: 16:10, 18:05, 20:00, 21:55.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza: 18:35.
Zapatua eta domeka: 16:55, 18:35.

***Destino final 2***
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:10, 00:05.
Domeka: 20:15, 22:10.

***X-Men 2***
Egubakoitza: 19:40, 22:20, 01:00.
Zapatua: 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:40, 22:20.

***Los Thornberrys***
Egubakoitza: 18:15.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:15.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza: 18:25, 20:40.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:25, 20:40.

***La última noche***
Egubakoitza: 19:55, 22:35, 01:15.
Zapatua: 17:15, 19:55, 22:35, 01:15.
Domeka: 17:15, 19:55, 22:35.

***Astérix y Obélix, misión Cleopatra***
Egubakoitza: 18:20.
Zapatua eta domeka: 16:05, 18:20.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***Matrix reloaded***
Eguena: 22:00.
Egubakoitza: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

***Johnny English***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:20, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:20.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:30, 00:25.
Domeka: 20:30, 22:30.

***Posesión infernal***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***Destino final 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:10, 20:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:10, 20:15.

***Taxi 3***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Condenado***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25.

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:15, 00:45.
Domeka: 12:15, 17:00, 19:30, 22:15.

***En la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Antwone Fisher***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:50, 20:10, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:50, 20:10, 22:25.

***Los rebeldes de Shangai***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:15, 20:30, 22:40, 00:50.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:15, 20:30, 22:40.

***Mi mujer es una actriz***
Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 00:15.
Domeka: 22:15.

***El cazador de sueños***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:05.

***Sin motivo aparente***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 12:15,16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:00, 18:30.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:00, 18:30.

***El último golpe (Heist)***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 17:55, 20:05, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 15:50, 17:55, 20:05, 22:10.

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:35, 20:40, 22:45, 00:50.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:35, 20:40, 22:45.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Bowling for Columbine:* ●●● / *Mi vida sin mí:* ●●● / *El último golpe (Heist):* ●●**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### LA ÚLTIMA NOCHE

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Spike Lee.
**AKTOREAK:** Edward Norton, Philip Seymour, Barry Pepper.

Orain dela hiru urteko irailaren 11ko gertakizunek arrastoa utzi dute Ameriketako Estatu Batuetako gizartean: biztanleek beste era batera ikusten dute bizitza. Eta hori guztia zineman ere islatzen da. Azken boladan, film ugaritako pertsonaiek, azterketa antzeko bat eginez, bizitzaren zentzuaren gaineko galderak egiten dizkiete euren buruei, eta kasu askotan ikusten dugu, itxurazko bizitza egoki eta zoriontsuaren azpitik, goibeltasun eta tristura sentimenduak ezkutatzen direla.

Spike Lee-ren azken lana zinema mota horri lotuta doa. Zazpi urteko kartzela-zigorra bete beharko duen droga trafikatzaile batek aske igaroko dituen azken 24 orduak ikusiko ditugu. Txikitako bi lagunekin, aitarekin, neskalagunarekin, txakurrarekin eta mafiako trafikatzaileekin dituen harremanen bitartez, bere nortasuna ezagutuz joango gara: diru erraza lortzeagatik zirikatzen utzi den bihotz oneko pertsonaia da. Gainera, pertsonaia hori eta alboan mugitzen diren pertsonaien bitartez luxuaren eta diruaren bila arituz, iparra eta balioak galdu dituen gizartea ikusteko aukera izango dugu. Garaileen gizarte horri hazka eginez gero, galduak eta



bakarrik sentitzen diren pertsonaiak aurkitzen ditugu. Eta pertsonaia horien atzean New York hiria azaltzen zaizkigu; bi dorreak utzi duten hutsune fisiko eta moralarekin.

*La última noche* filmaren hasiera benetan ederra da: New Yorkeko gaueko panoramika ikusteko aukera dugu, Terence Blanchard-ek konposaturiko musika bikainaz (hileta-martxa antzeko bat) lagundua. Jarraian, protagonistak txakurrarekin duen lehen topaketa ikusiko dugu; indar handiz egina dago. Hasiera honek oso ondo zehazten du pertsonaiaren izaera. Spike Lee ederki hurreratzen da pertsonaien intimitatera, nahiz eta une batzuetan, giroaren deskribapenean eta zuzendariaren ukitua ematen, indarra sakabanatu egiten den. Mafiako gizonekin diren eszenak eta poliziaren itaunketa filmaren momentu topikoenak dira.

Aipatzea merezi du aktore guztien lanak, eta bereziki Edward Norton-en interpretazioak. Aktoreek filmak dramatikoki zentzu txikiagoa duten momentuak sinesgarri bihurtzen dituzte.

ANTONIO ZABALA

INMO f3 inmobiliaria SARE
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

## SALGAI

**ARRASATE**
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.

• 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.

• 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.

• 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa.Eguzkitsua.150.253,02 euro (25.000.000 pta)

**BERGARA**
• 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

**ANTZUOLA**
75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka. 161.071,24 euro (26.800.000 pta).

## ERRENTAN

**OÑATI**
80 m². Hiru logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Egoera onean.

**ESKAERA HANDIAGATIK ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU SALGAI EDO ALOKAGAI.**

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
• Arane erreka. 87 m² erabilgarri. Trastelekua. Oso ondo dago.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**
• Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
• Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**NAGUSILAN- ERRETIRATU BOLUNTARIOAK**

Arrasateko Nagusilan-ek pertsona nagusiak zaintzen eta haiekin egoten ikasteko hastapen ikastaroa antolatu du. Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak (ICTE) emango du, Arrasateko egoitzan, Saiolan eraikinean, lehengo solairuan (antzinako Zerrajeran). Maiatzaren 20an, 21ean, 22an, 27an, 28an eta 29an, 16:00etan.

Etortzea libre izango da.

Informazioa eta izenematea:
**943 77 16 99** eta **943 79 25 85** telefono zenbakietan.

**LAN EGIN GURA DUZU?**

**TOLOSA eta HONDARRIBIA.** Hamar plaza Udaltzaingorako. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz. 943 444 509

**SUHILTZAILEAK.** Deialdiak laster. Egizu lan Euskal Herriko parkeetan. Lan baldintza bikainak. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**BASOZAINA.** Egizu lan Euskal Herriko parke eta natura-erreserbetan. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**GARRAIOLARIA**. Lor ezazu trebakuntza-titulua, garraiolari profesional izan zaitezen. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**JUSTIZIA MINISTERITZA.** Euskal Herri osorako eskaintza publikoa. 42 laguntzaile, 10 agente, eta 23 justizia ofizial. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**AIRE-KONTROLATZAILEAK.** 250 lanpostu atera ditu AENAk. Eskakizuna: diplomaduna edo lizentziaduna izatea eta ingeleseko maila ertaina edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**AUTOESKOLAKO IRAKASLEA.** Trafikok deialdiak egingo ditu laster. Lan baldintza ezin hobeak. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**LIBURUTEGI LAGUNTZAILEA.** Udaletan, unibertsitateetan, artxiboetan... lan egiteko. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**ADMINISTRARIA.** Teknikoak eta laguntzaileak. Deialdiak laster, udaletan eta erakunde publikoetan lan egiteko. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**ANTZUOLA**
**NESKA BAT BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. 617 33 21 62**

**ARRASATE**
**NESKA BAT BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. 943 79 74 09**

**ARETXABALETA**
**ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN TABERNAN LAN EGITEKO. 652 70 82 46**

**ARRASATE**
**SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA KAFETEGI BATEN LAN EGITEKO. 943 79 11 15**

**BERGARA**
Bergarako Murinondo (San Blas) auzo elkartean **eguneroko garbitasunaz arduratuko den lagun baten bila gabiltza**. Ahal dela Bergara ingurukoa. Deitu goizez. **649 94 19 07**

**LANPOSTU DEIALDIA**

TXATXILIPURDI ELKARTEAREN LANPOSTU DEIALDIA:
**Haurren saileko arduraduna.**
**Sei orduko kontratua.**
Funtzioak:
Euskal Herriko euskara elkarteekin harremana, elkarteko beste sailekin koordinazioa, Arrasateko ludoteken koordinazioa, herriko udalekuen antolaketa, jostailuen erakusketa ibiltariaren kudeaketa.
**Perfila**
Oro har gizarte zientziatan diplomatu edo lizentziadunak.
24 urtetik gorakoak.
**Esperientzia**
Euskalgintzan. Umeen aisialdian.
Interesatuok curriculumak (argazki batekin) bidali maiatzaren 23a baino lehen Txatxilipurdi elkartera.
Gutun-azalean zera idatzi:
Haurren saileko arduraduna
Txatxilipurdi Elkartea. Pablo Uranga 6 behea ARRASATE

**ARETXABALETA**
**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI. 943 77 03 08**

# 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zabalotegin. 86 m2. 680 35 25 21.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. 679 82 77 75.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Levanteko hondartzako pasealekuan. Itsasoari begira. Guztiz hornituta. Aparkalekuarekin. 630 41 84 65.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Matxiategin. 943 76 37 97.

**Donostia.** Etxebizitza ematen dut errentan udan. 635 71 49 16.

**Lizarra.** Nafarroako herri eder horretatik gertu, Azkonan, XVII. mendeko etxea har dezakezu errentan. Aste bukaerarako, aste osorako edo hamabost egunerako. Oso etxe polita. Errustikoa eta eraberritua. 605 77 02 08 edo 943 42 74 49.

**Val d'Aran (Lleida).** Apartamentua ematen da errentan uztailean edo abuztuan. 15 edo 30 egun. 630 08 24 17.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 600 70 72 76.

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan. 943 76 15 09.

# 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Ozaetan. 943 76 00 12.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea errentan ematen da Kontzezino kalean. 658 72 09 87.

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Bolun. 943 76 28 07 edo 943 76 02 04.

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Burdiñaten. 943 76 06 60.

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Masterreka kalean. 943 76 21 39.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Poligono aldean. 649 64 35 35.

# 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Emakumea behar da abuztuan goizez eta arratsaldez etxeko lanak egin eta adineko pertsona bati laguntzeko. 943 76 22 39.

### 402. ESKAERAK

**Bergara.** Neska gertu umeak zaintzeko edo bezeroenganako arreta lanetan jarduteko. 650 73 13 39.

**Debagoiena.** Gertu nago pertsona zaharrak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Egunez edo gauez. 943 75 21 43.

# 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Kawasaki** KLE 500 motoa salgai. Trail motorra. Bizilindrikoa. Ondo dago. 22.000 km ditu. 2.400 euro. 943 76 64 01 edo 605 71 24 73.

**Opel** Frontera autoa salgai. 2000 Sport modeloa. Piezak erabiltzeko bakarrik balio du. 615 70 59 90.

**Volkswagen** Golf GTI salgai. 751 euro. 637 71 80 12.

### 602. EROSI

**Ducati** markako motoa erosiko nuke. Berdin dio zelan dagoen. 656 75 76 98.

**Motoa** erosiko nuke. Montesa, Vultaco edo Ossa markakoa. Berdin dio zelan dagoen. 656 75 76 98.

# 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Kalkulagailua** salgai, matematiketarako. Casio markakoa. Grafikoak egiteko pantaila dauka. 656 75 76 98.

**Karro-denda salgai.** Sango modeloa. Ondo dago. 615 70 09 90.

**Solarium** horizontala salgai. Ezaugarriak: gorputzerako 28 lanpara eta aurpegirako bat; hiru ohatila (kamilla); izerdirako manta eta mikropigmentaziorako Zafiro makina. 660 45 05 72.

**Solariuma** salgai. Gutxi erabilia. Ondo dago. 120 euro. 615 70 59 90.

### 802. EROSI

**Trikitixa** erosiko nuke, bigarren eskukoa. Zero-sette markakoa, hiru edo lau ahotsekoa eta si-bemol tonukoa izan beharko luke. (Esther). 666 44 41 02.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Maiatzaren 8an (eguena) umearen karrotxo tolesgarria ahaztu zitzaidan Erguingo ikastetxearen aldameneko ziburuetan. Norbaitek jaso badu, dei diezadala. 943 79 40 44.

# 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Donostiara egunero** Arrasate edo ingurutik autoz joaten den lagun baten bila nabil, gastuak elkarbanatzeko. 670 27 65 77.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
w w w . l a s a g a b a s t e r . c o m
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## AIPAGARRI

### Bitoriano Aranburu

ARRASATE



Aurten bete ditu 50 urte apaizgintzan don Bitorianok. Astelehenean Juan Mari Uriarte gotzaiarekin bildu ziren urrezko ezteiak bete dituzten 15 apaiz, tartean, don Bitoriano. Urteetan izan da Aretxabaletako parrokoa, eta herriak omenaldia egingo dio ekainaren 15ean.

### Rachael Olabarria

BERGARA



Domekan Euskadiko nesken futbol selekzioarekin jokatu zuen Valentziaren aurka Leioan, 17 urtetik beherakoen autonomia arteko txapelketan. Euskadik 2-3 galdu zuen Valentziaren aurka eta Rachaelek gol bat egin zuen. Espainiako 19 urtetik beherakoen selekzioan ere badihardu.

### Txipi Ormaetxea

ARAMAIO



Aramaioko euskararen gaineko liburua idatzi du Txipik, eta kalean da dagoeneko, *Aramaioko Euskara* izenburupean. Aurreko asteburuan aurkeztu zuten liburua Aramaioko udaletxean, eta hantxe egon ziren Txipi Ormaetxea bera, Patxi Uribarren euskaltzaina eta udal ordezkariak.

## JAIOTAKOAK

**Uxue Morales Pavo.** Aretxabaletan, apirilaren 16an.
**Ane Arrieta Garate.** Bergara, apirilaren 25ean.
**Naroa Etxebarria Uribe-Etxebarria.** Aretxabaletan, 26an.
**Olatz Murguzur Arregi.** Oñatin, apirilaren 27an.
**Jon Guridi Altube.** Oñatin, apirilaren 27an.
**Xabier Martínez Ojuel.** Aretxabaletan, apirilaren 27an.
**Unai Azkoitia Mesonero.** Leintz-Gatzagan, apirilaren 30ean.
**Alazne Urkiola Martínez.** Bergara, maiatzaren 1ean.
**Unai Negreira González.** Oñatin, maiatzaren 2an.
**Amaia Kortabarria Ezpeleta.** Oñatin, maiatzaren 3an.
**Julen Saenz-Azkunaga Fabian.** Aretxabaletan, maiatzaren 3an.
**Eneko Xabier Arregi Bengoa.** Aramaion, maiatzaren 5ean.
**Nikolas Beitia Altube.** Oñatin, maiatzaren 6an.
**Irene Lizarralde Barrena.** Oñatin, maiatzaren 7an.
**Aitor Zubiagirre Urzelai.** Oñatin, maiatzaren 8an.
**Tarik Akkouh Benomar.** Oñatin, maiatzaren 8an.
**Aimar Erostarbe Ugarte.** Oñatin, maiatzaren 9an.

## HILDAKOAK

**Pilar Madina Anduaga.** Oñatin, apirilaren 25ean. 81 urte.
**Eusebia Muruamendiaraz.** Bergaran, apirilaren 29an. 80 urte.
**Maria Amutxastegi Azpiazu.** Bergaran, apirilaren 29an. 78 urte.
**Gregorio Idigoras Ugarte.** Arrasaten, apirilaren 30ean. 91 urte.
**Paco Unanue Larrañaga.** Bergaran, apirilaren 30ean. 70 urte.
**Juliana García Seco.** Oñatin, apirilaren 30ean. 91 urte.
**Jose Larrañaga Berraondo.** Bergaran, maiatzaren 1ean. 57 urte.
**Maximo Jiménez Fernández.** Bergaran, maiatzaren 2an. 82 urte.
**Manuel López Sastre.** Oñatin, maiatzaren 2an. 73 urte.
**Josefa Rodríguez Benito.** Arrasaten, maiatzaren 3an. 85 urte.
**Arantxa Unamuno Alberdi.** Bergaran, maiatzaren 3an. 51 urte.
**Venancia Pagola González.** Arrasaten, maiatzaren 4an. 94 urte.
**Bizente Isasa Igartua.** Oñatin, maiatzaren 4an. 83 urte.
**Alberto Valdezate Miguel.** Arrasaten, maiatzaren 5ean. 91 urte.
**Begoña Heriz Arantzabal.** Arrasaten, maiatzaren 6an. 62 urte.
**Angela Arregi Gaztelurrutia.** Oñatin, maiatzaren 6an. 95 urte.
**Laureano Manzisidor Odriozola.** Antzuolan, 7an. 79 urte.
**Nicolas Martínez Pérez.** Arrasaten, maiatzaren 9an. 81 urte.
**Jabier Gereka Tosantos.** Oñatin, maiatzaren 9an. 86 urte.
**Aniceto Sánchez Gallego.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 87 urte.
**Jaime Ortiz Ribes.** Arrasaten, maiatzaren 12an. 34 urte.
**Amparo Montero Caballero.** Oñatin, maiatzaren 12an. 91 urte.
**Jose Joakin Aramendi Aramendi.** Elgetan, 12an. 81 urte.
**Juana Arana Arantzeta.** Arrasaten, maiatzaren 13an. 85 urte.
**Amalia Caballero Cubero.** Bergaran, maiatzaren 13an. 76 urte.



**Julen Saenz-Azkunaga Fabian**
Aretxabaleta • Maiatzaren 3a • 4,600 Kg. Gurasoak: **Kati** (Aretxabaleta) eta **Iñaki** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Naia Cornes Azula**
Arrasate • Maiatzaren 3a • 2,720 Kg. Gurasoak: **Carlos Cornes** (Arrasate) eta **Marivi Azula** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Amaia Kortabarria Ezpeleta**
Oñati • Maiatzaren 3a • 4,310 Kg. Gurasoak: **Junkal Ezpeleta** (Oñati) eta **Jesus Kortabarria** (Oñati). Argazkian, umea amama Blancarekin.



**Nekane Mora Aransaenz**
Urretxu • Maiatzaren 5a • 3,330 Kg. Gurasoak: **Joana Aransaenz** (Bergara) eta **Gabriel Mora** (Urretxu). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Aitzol Lagunilla Agirre**
Aretxabaleta • Maiatzaren 10a • 3,360 Kg. Gurasoak: **Oihane Agirre** (Aretxabaleta) eta **Aitor Lagunilla** (Arrasate). Argazkian, umea amama **Karmele**ren besoetan.



**Lur Zufiria Aranguren**
Ormaiztegi • Maiatzaren 9a • 3,150 Kg. Gurasoak: **Ainhoa Aranguren** (Antzuola) eta **Mikel Zufiria** (Ormaiztegi). Argazkian, umea amaren besoetan.

**Alejandro Zubia** eta **Consuelo Ezkurra** arrasatearrek 25 urte beteko dituzte ezkonduta datorren martitzenean, hilak 13. 1978ko maiatzaren 13an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Dorletako Ama Birjinaren ermitan. Orain, **zilarrezko ezteiak** ospatzen dituzten honetan, zuen iloba guztiek **zorionak** opa dizkizuete eta ondo ondo pasa ezazuela zuen ezkon urteurrena!



### ESKELA

**Timotea Elorza Azkoaga**

Donostian hil zen 2003ko maiatzaren 11n, 83 urte zituela.



Haren aldeko meza domekan, maiatzaren 18an, 11:00etan, **Bergara**ko Altos Hornos-eko elizan

*Donostiako elizkizunetara joan zaretenoi, eta domekako mezara joango zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Jose Maria Biain Betozke**



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 18an, 12:30ean, **Bergara**ko San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Martina Irazola Altuna**



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 18an, 12:30ean, **Bergara**ko San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Luis Agirre Idigoras**



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 18an, 12:30ean, **Bergara**ko San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### II. URTEURRENA

**Guillermi Llano Etxegibel**

Aretxabaletan hil zen 2001eko maiatzaren 18an.



Bigarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 18an, 12:00etan, **Aretxabaleta**ko Parrokian.

*Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.*

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

**ZAPATUA, 19**

Egun lainotsua izango dugu zapatua, eta euri txikia egingo du egun osoan zehar. Giroa epeldu egingo da, tenperaturak gora egingo du. Haizea, berriz, mendebaldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Lainoak eta ostarteak.
**Errioxa:** Egun euritsua.
**Pirinioak:** Ostarteak.

**DOMEKA, 20**

Domekan antzerako eguraldia izango dugu. Egun lainotsua izango dugu eta euri txikia egingo du. Tenperaturak gora egingo du berriro. Haizea, berriz, mendebaldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Zaparradak.
**Errioxa:** Egun lainotsua.
**Pirinioak:** Lainotsu.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**13,2º C**

ILARGIAREN ALDIAK: MAIATZA

| ilgora | ilbete | ilbehera | ilberri |
|---|---|---|---|
| 9 | 16 | 23 | 31 |

EGUZKIA: MAIATZAREN 18

Sortu 06:41
Gorde 21:28

## URKULUKO URTEGIA

**Azkeneko astebete honetan ia ez da aldatu Urkuluko urtegiko ur maila; izan ere, ez du ia euririk egin. Aurreko astean %92 zen ur maila; oraingoan, berriz, %91,29.**

**% 91,2**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112)) SOS DEIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 76 24 40 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

| | |
|---|---|
| GOITB | 943 71 23 96 • goitb@ goiena.com |
| Goienkaria | 943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com |
| Arrasate Press | 943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com |
| Berrigara | 943 76 03 97 • berrigara@goiena.com |
| Aretxagazeta | 943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com |
| Goibekokale | 943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com |
| Kontuola | 943 76 03 97 • kontuola@goiena.com |
| Txirritola | 943 71 25 11 • txirritola@goiena.com |
| Ze barri? | 943 79 86 21 • zebarri@goiena.com |
| Kontzejupetik | 943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net |
| Putz | 943 79 42 30 • putz@euskalnet.net |
| Arrasate Irratia | 943 71 17 31 • irratia@goiena.com |
| Oñati Irratia | 943 78 26 17 • irratia@oinati.net |
| Sustatu.com | 943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com |

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**

## E-DEBAGOIENA: INFORMAZIO-GIZARTEAN ERAGITEN

■ ADMINISTRAZIOAREN DIGITALIZAZIOA AZTERTU DU

**AITOR OROBENGOA**/LKSko IKERKUNTZA ALORREKO AHOLKULARIA

# *"Udalen zerbitzuak digitalki eskaintzeak garrantzia izango du"*

MARIA AGIRRE

**Administrazioaren digitalizazioa XXI. mendeko erronka garrantzitsuenetarikoa izango dela uste du Aitor Orobengoak. Hala ere, oraindik urratsetan gaudela aitortu digu. Hortaz, lan handia dago egiteko.**



MARIA AGIRRE

**Eusko Jaurlaritzaren eskariz, Informazio Gizartean erakundeen egitekoak zein behar duen izan aztertu duzu. Zein ondoriotara iritsi zara?**

Administrazioan zenbat eta gorago jo, orduan eta txikiagoa da erakundeen eta herritarren arteko harremana. Herritarrek hartu-eman handiagoa dute Udalarekin Diputazio edo Jaurlaritzarekin baino. Horregatik, udalek berebiziko garrantzia dute administrazioaren digitalizazioan .

**Zerbitzu ugari eskaintzen dituzte udalek. Merezi du guztiak digitalki eskaintzea?**

Gutxi erabiltzen direla eta, digitalizatzea merezi ez duten zerbitzuak daude. Europako Batasunak badu eginda zerrenda bat, eta bertan zerbitzu interesgarrienak aipatzen dira. Udalen kasuan, honako hauek jasotzen dira, besteak beste: obra baimenak, jaiotze agiriak...

**Europan zelan doa administrazioaren digitalizazioa?**

Oro har, nahiko atzeratuta. Munduan aurreratuenak Kanada, Australia, Singapur eta Hong Kong dira. Horien atzetik leudeke AEBak, Suedia eta Alemania.

**Lege aldetik, baina, korapilatsua dirudi gaiak.**

Zerbitzu batzuek lege aldetik lotura sortzen dute. Esate baterako, obra baimenen kasuan. Etxeko komuna konpontzeko baimena ematen badidate, ezin dut baimen hori etxe osoa konpontzeko erabili. Lege aldetik erantzukizun bat egongo litzateke. Berriz, San Juanetako egitarauaren berri jartzen bada Interneten, eta ezarritako ordutegia baino beranduago hasten bada egitarauren bat, hor ez litzateke erantzukizunik egongo.

**Udaletxera joaten garenean agiri edo eskari bat egitera, sinadura bidez horren lekukotasuna uzten dugu. Digitalizazioak zelan erantzungo dio horri?**

Bide digitala erabilita ez dago paperik. Bestalde, informatikako sistemak ere aldatuz doaz, eta garai baten ordenagailuek irakur zitzaketen dokumentuak gaur egun ezin dituzte irakurri. Etxera agiri bat heldu zaigula ziurtatzeko zertifikazio digitalaren aukera legoke. Bestalde, agiri bat sinatu dugula ziurtatzeko, sinadura elektronikoa. Une honetan, edozelan ere, ez dago erabateko irtenbiderik. Gainera, beste erronka bat ere badu administrazio digitalak: agiriak urte luzez babestea, hain zuzen ere.

> *"Europan administrazioaren digitalizazioa oro har nahiko atzeratuta doa"*

> *"Luzera begira diru aldetik interesgarria izan daiteke erakundeendako"*

**XXI. mendean, hortaz, administrazioaren digitalizazioa izango da erronka.**

Europako Batasunak erabaki duenez, 2004ak administrazio digitalaren urtea behar du izan. Horra iristeko, baina, aldez aurretik lan handia egin beharra dago, eta Europako herrialde gehienek lan horri oso berandu heldu diote. Europan aitzindariak dira Suedia, Danimarka, Finlandia, Erresuma Batua eta Alemania, eta horiek espero dute digitalizazioa bi urte barru nahiko aurreratua izatea.

**Hemen berandu gabiltzala, baina Debagoieneko udalak hasi dira urrats batzuk ematen.**

Arrasateko Udalak berritu du bere webgunea, baina administrazio digitalaren bidean hori aurrerapauso txikia da. Aretxabaletako Udalak, berriz, hil honetan webgune berria aurkeztuko du, eta hirigintzako zerbitzu bi digitalizatzeko urratsak emango dira.

**Digitalizazioa garestia da hasiera baten. Luzera begira?**

Alemaniak egindako ikerketa baten arabera, digitalizazioaz hilero bost euro aurreratuko dituzte herritar bakoitzeko. Azterketak badaude erakusten dutenak erakundeen digitalizazioa interesgarria izan daitekeela.

## HITZGEZIDUNAK

Luma




## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**ILL EIN BIHAR NOK ALA?**

Eibarren oitxuria zan batedonbat naiko gaixo zeguanian, ari bixitxa eitxia txanpan botilla bat eruanaz. Egun baten, senaremazte batzuk juan ziran bera ikustera, eta zer eruango-eta, beste ezerekin pentsatu barik, pastel batzuk eta txanpan botillia eruan zetsen.

*Balbotin*-ek txanpan botillia ikusi zebanian, bildurtuta, esan zeban:

- Zer baña, ill eiñ bihar nok ala?

**TUNELA EITXEKO BARAUTZA**

Bazeguan Patxiko Arikitxaneko dendan. Orretan etorri zan gazte bat eta hogei kilometroko barautza eskatu biarrian, eskatu zeban hogei metrokua.

A entzun ebanian, Patxikok:

- Zer, ugezabak tunela eiñ bihar jok Eibartik Durangoraiño ala?

**NON SALDU A DANA?**

Patxiko ta bere lagun bat sartu dira *Mari Katillu*-n tabernara. An ikusi ditxue gazte batzuk jo ta su karta jokuan. Orretan esan zetsen lagunak:

- I, Patxiko, orrek guztiok biarrian alako amorrua ipiñiko baleikiek…

Ta Patxikok:

- Ta zeiñek saldu arek danak?

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



### Lurraldeko Zatiko Planean, Debagoienean zenbat etxebizitza berri egitea aurreikusten da?

Lurraldeko Zatiko Planean, zortzi urteren buruan, Debagoienean bizitegi berriak eraikitzea eta biztanlez haztea planteatzen da. Asmatuko ote zenuke guztira zenbat etxebizitza berri egitea planteatzen den?

- 5.000
- 12.500
- 9.500
- 7.500

Erantzun zuzena: 9.500.

## SOLUZIOAK





## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Ingurukoei entzun ez eta gauzak zure erara egiten badituzu, inork ere ez du gura izango zurekin lan egin; horrenbestez, ahalegin zaitez zure ideiak aurkezten eta, era berean, besterena entzuten.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Beti egia esaten ahalegindu zaitez, gezurtxoren bat esaten duzun bakoitzean harrapatu egiten zaituzte-eta. Bestalde, lanerako onuragarriak izango diren harremanak egingo dituzu. Azkenik, marrantak jota egongo zara, eta behin baino gehiagotan ezin izango duzu berbarik ere egin.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Zuk bakarrik dakizu zer komeni zaizun; hortaz, ez utzi inoren esku zure bizitza. Bestalde, lanarekin zerikusi zuzena duen berri bat jakingo duzu. Ez inori esan.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Erantzun zakarrak emateko eta lotsagabe jokatzeko duzun joerak kalte larriak eragin diezazkizuke lanean; eta nahiz eta arrazoi argiak dituzun esaten duzuna esateko, hobe duzu isilik egon.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Aurretik egindako esfortzuaren fruituak jasotzen hasiko zara, eta horrenbeste borrokatu dituzun emaitzez gozatzen hasiko zara. Bestalde, gastu gehiegi izango dituzula-eta, zure aurrekontuak astindu ederra jasoko du.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Ondo dago lagunekin eta familiartekoekin zure arazoak konpartitzea, baina ez zaitez haserretu haiek ezin badezakete ezer egin zuri laguntzeko. Bestalde, bizimodua beste era batera antolatu beharko duzu, aisialdirako denbora luzeagoa izan dezazun.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Errealitatea hain da gogorra, itzarrik amets egiteko joera izango duzu, eta horrek arazoak ekarriko dizkizu lanean. Ahalegin zaitez egoerari aurre egiten eta lezioa ikasten.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Oso intuitibo egongo zara, ohi baino biziago, eta horren ondorioz oso gaitza izango da zu engainatzea. Buru-argitasun horrek lagundu egingo dizu hainbat erabaki hartzerako orduan, eta lagun batek baino gehiagok aholku eskatuko dizu.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Bikotekideari egia osoa esaten badiozu, utzi egingo zaitu. Hortaz, nahiz eta aukerarik egokiena ez izan, utziozu bere kabuz errealitatea ikus dezan. Bestalde, lan guztiak zure gain hartzen badituzu, bat baino txarto egingo dituzu.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Gauzak oso zakar esaten dituzula-eta, bihotzez maite duzun lagunen bati min egin zeniezaioke. Ahalegin zaitez diplomatikoago izaten. Bestalde, lapurreta jasan zenezake.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Gauza guztiak egiteko kapaz zarela uste duzu, baina epe ertainera ikusiko duzu baten baino gehiagotan huts egingo duzula. Bestalde, atzerrian dagoen lagun edo familiartekoren baten berri izango duzu. Azkenik, gehiegikeriak egiteko joera.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Gura duzun guztia egiteko denbora falta duzula sumatzen duzu; hortaz, galde iezaiozu zeure buruari ea merezi ote duen robot baten moduan bizi izatea, eguneroko gauzez gozatu barik. Bestalde, tripako mina izango duzu, eta horren ondorioz dieta egin beharko duzu.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA



## 'Berriak berezia'

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA 20:00

### Hauteskunde kanpaina, ordubeteko albistegi berezian

Hauteskunde kanpaina nagusituko da albistegietan. Ordubete iraungo du *Berriak* saioak. Elkarrizketak, kale inkestak eta hauteskunde kanpainako ekitaldiak izango dira nagusi.



## 'Udal hauteskundeak 2003'

DOMEKA 19:30

### Maiatzaren 25ean hauteskundeetako saioa

Maiatzaren 25ean, arratsaldeko zazpi eta erdietan hasiko da hauteskundeetako saio berezia. Debagoieneko bederatzi herritan izango dira berriemaileak, eta platoan iritzi-emaileak.



## 'Iparrorratza'

MARTITZENA 21:00

### Josu Gallarretarekin Brasilgo Amazonas ikusgai

Amazonasko inguruak bisitatzeko aukera izango dugu Josu Gallarreta abenturazale bizkaitarrarekin. Banoa bidaia agentziako kide da. Orain dela bi urte egon zen Brasilen.



## 'Harmailatik berezia'

ASTELEHENA 21:00

### 'Harmailatik' saioan ez da tertuliarik egongo

Hauteskundeak direla eta, *Harmailatik* saioan ez da tertuliarik egongo. Aste bukaeran izandako kirol kontuen berri emango digu Julen Iriondok, baina, esan bezala, ez da tertuliarik egongo.

## TELEBERRIAK

### Herriz herriko mahai-inguruak, bertan behera GOITBn

Joan den astean iragarri genizuen Goiena Telebistak politikaren gaineko mahai-inguruak egingo zituela, herriz herri, hauteskunde kanpainan; Debagoieneko bederatzi herrietako hautagaiekin mahai-inguruak antolatuko zituela, alegia. Hala ere, Espainiako auzitegiek herrietako plataformei hauteskundeetan parte hartzea galarazi dietela kontuan hartuta, eta beste arazo batzuk tarteko, mahai-inguruok bertan behera uztea erabaki du GOITBk. Edozelan ere, herriz herri elkarrizketak egin dizkiete indar politikoetako ordezkariei, eta horiek eskaintzen dihardute. Horrez gainera, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaiekin politika orokorraren gaineko mahai-ingurua ere antolatu dute, eguaztenean eskaini zutena. Mahai-inguru hori asteburuan ere ikusteko aukera izango duzue GOITBn.

### Plataforma digital berria uztailean hasiko da emititzen

Via Digital-en eta Canal Satelite Digital-en bateratzearen ondorioz sortutako plataforma digital berria uztailean hasiko da emititzen. Horretarako ez da aldatu beharrik izango dekodifikatzailea, eta satelite sistema biak –Astra eta Hispasat– erabiltzen jarraituko dute. Egitaraua, ostera, bakarra izango da. Gaur egungo bi milioi eta erdi abonatuetatik hiru milioira pasatu nahi dute.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Maiatzaren 16tik 22ra

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 16 | ZAPATUA 17 | DOMEKA 18 | ASTELEHENA 19 | MARTITZENA 20 | EGUAZTENA 21 | EGUENA 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Sarrera doan<br>14:30 Berriak<br>15:00 Soinuz blai<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>21:00 Astebete<br>21:30 Soinuz blai<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>23:00 Astebete<br>23:30 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Iparrorratza<br>14:30 Mahai-ingurua: Egoera politikoa aztergai<br>15:15 Sarrera doan<br>15:45 Astebete<br>16:15 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Iparrorratza<br>14:30 Mahai-ingurua: Egoera politikoa aztergai<br>15:15 Sarrera doan<br>15:45 Astebete<br>16:15 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Astebete<br>14:30 Berriak<br>15:00 Soinuz blai<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak Hauteskundeak Eskoriatza<br>21:00 Harmailatik<br>21:30 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak Hauteskundeak Eskoriatza<br>23:00 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Harmailatik<br>14:30 Berriak<br>15:00 Solasean berezia<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak Hauteskundeak Aretxabaleta<br>21:00 Iparrorratza Brasil<br>21:30 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak Hauteskundeak Aretxabaleta<br>23:00 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Iparrorratza Brasil<br>14:30 Berriak<br>15:00 Solasean berezia<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak Hauteskundeak Oñati<br>21:00 Soinuz Blai<br>21:30 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak Hauteskundeak Oñati<br>23:00 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Soinuz Blai<br>14:30 Berriak<br>15:00 Solasean berezia<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak Hauteskundeak Bergara<br>21:00 Sarrera doan<br>21:30 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak Hauteskundeak Bergara<br>23:00 Emisio amaiera |
| 21:00 Astebete | 14:30 Mahai-ingurua | 15:15 Sarrera doan | 21:00 Harmailatik | 20:00 Berriak | 13:30 Gatza eta berakatza | 15:00 Solasean berezia |

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

## KAMERAAURREAN



*"Ibarretxeren plana da bakea lortzeko planik eraginkorrena. Elkarrizketa bultzatzen du, guztion arteko elkarrizketa. Gainerako proposamenek ez dute hori egiten"*

**Iñaki Galdos** / EAko Gipuzkoako presidentea
"MAHAI-INGURUA" (2003-05-14)



*"Aralarren argi daukagu: AuBren eta herri plataformen botoak zenbatuko ditugu eta errespetatu egingo ditugu"*

**Joxe Etxeberria** / Aralarko Arrasateko alkategaia
"BERRIAK" (2003-05-14)

## TELEBEGI/ Unai Loidi

# *Jasangaitza*

Badira telebistan jasan ezin ditudan gauza batzuk: ezkutuko kamerekin grabatzen dizuten programak, dagoeneko ezer berririk asmatzen ez dutelako; Ana Obregonen seriea, garbi esanda, atzerakada eragiten duelako; areto-dantzen lehiaketak, ikusita bakarrik hotzikara sortzen didatelako; eta, ez jakin arren, adierazpenak euskaraz irakurtzen azaltzen diren Jaurlaritzako sailburuak, nahiago izaten dudalako entzun ere ez egin. Hauek agertzen direnean, aldatu egiten dut beste kateren batera.

Gauza bera egiten dut oraingo *haustekunde* kanpainarekin ere. Baina kanpainari *zapping* egitea errealitatetik ihes egitea dela aurpegiratu zidan lehengoan lankide batek. Ez nion sinistu, berak ere ez zuelako benetan esan. Hauteskundeetako doako tarteak, mahai-inguruak edo elkarrizketak Obregonen seriea bezain urrun daude errealitatetik, eta hura baino kaltegarriagoak izan daitezke osasunarentzat.



**iKER**

SUKALDE
ETA BAINU
ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
ARRASATE

FAGOR


# Adi, irakurle!

GOIENKARIArik jasotzen ez duzula etxean?
Zure lagun, familiarteko, ezagun edo
ingurukoren batek jasotzen ez duela?
Harpideen etiketan, daturen bat oker dagoela?
Daturen bat aldatu nahi duzula?

**Deitu**
**943 79 21 00**
**telefonora**
edo idatzi ***harpidetza@goiena.com***
helbide elektronikora,
eta eman zure izen-deiturak eta helbidea.

**Izan zaitez harpide. Doan da!**




**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Goienkaria©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetzak@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko maiatzaren 9a

## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Fran Iturbe/ Musikaria

**Mikel Erentxun, Gozategi, Bide Ertzean... Hainbat taldetan diharduzu. Esan liteke lanik ez zaizula falta.**

Gauzak zelan dauden ikusita, derrigorrezkoa da dibertsifikatzea. Alde horretatik, pozik nago.

**Gelditu ere egin barik ibiliko zara.**

Batzuetan, lana pilatu egiten zait, eta beste batzuetan, lasaiago jarduten dut. Uda partean eta udaberrian jarduten dugu lanpetuen.



**Gainera, beti musikari onekin inguratuta ikusten zaitugu. Zu ere musikari ona zaren seinale izango da hori!**

Eskerrik asko! Bakoitzak ahal duena egiten du, ahal duen ondoen, eta jendeak hori baloratzen badu, eskertzekoa da. Nik uste dut badudala estilo propioa, gitarra jotzeko era propioa, eta hori garrantzitsua da. Badirudi nigana jotzen duten musikariek estilo edo ezaugarri hori nahi dutela.

**Bergaran hasi zinen gitarra jotzen, eta Mikel Herzog izan zen zure lehen taldekideetariko bat. Zelan gogoratzen dituzu garai haiek?**

Auzoko lagunekin hasi nintzen musika egiten, Seska taldean. Orduan ezagutu genuen Mikel Herzog; Nekez eta Udaberri taldeetan ziharduen hark, eta elkar ezagutu ondoren, makina bat proiektutan ilusioz jardun genuen.

**Orduan imajinatzen zenuen gaur egun honaino iritsiko zinela?**

Ez, sekula ere ez. Denoi gustatzen zaigu gure zaletasunetatik bizi ahal izatea, eta nik ere musikatik bizi nahi nuen. Dena dela, gaur egun nahiko irreala da Euskal Herrian hori planteatzea. Nik ez dut hain serio sekula planteatu, baina egia da honetaz bizi naizela. Gitarra jotzen 25 urte egitera noa, oso gazterik hasi nintzen-eta: 14 urterekin, eszenatoki gainean gitarra jotzen niharduen.

**Oker ez banago, autodidakta zara, gainera!**

Bai, nire kabuz ikasi nuen gitarra jotzen, belarriz eta ordu pilo bat sartuta. Ez dago beste sekreturik.

**Dena dela, gaur egun Bergaratik oso gutxi agertzen zara. Iruñea nahiago duzu, ala?**

Iruñean ditut estudioa, etxea eta bizimodua.

**Ameriketako Estatu Batuetan ere dezente jardun duzu azkenaldian. Zer dela eta?**

Erentxunekin birak egin izan ditugu han, eta hango jendea ezagutzen ere hasi naiz. Los Angelesko neska batekin maketa bat grabatu dut, eta hango klub batzuetan jotzen hasi gara.

**Euskal Herrian, zein osasun du musikak?**

Nahiko tristea. Salmenten eta zuzeneko kontzertuen aldetik oso mugimendu txikia nabari da. Hala ere, ez zait iruditzen Euskal Herriko egoera bakarrik denik.

**“Nik uste dut badudala estilo propioa, gitarra jotzeko era propioa, eta hori garrantzitsua da”**

**“14 urterekin, eszenatoki gainean gitarra jotzen niharduen”**

**“Salmenten eta zuzeneko kontzertuen aldetik, oso mugimendu txikia nabari da”**

► *Bergararra / 38 urte / gitarra jotzailea*

## PIPERRAUTSA

### *Begiluze*

Pasatzen denari esan ohi zaio begiluze. Ustez hamalau izatekoa lau soilean geratzen zaion horri. Buffet ugarian platera bete eta erdia sobran uzten duenari.

Baina begiluze izan daiteke, baita ere, begia urrun ipintzen duena, urrutikoaren kezkan bizi dena, zer datorren igarri nahian etorkizuna moldatzeko. Begiluze hau estratega da, eguneroko zurrunbilotik begirada jaso eta norabidea igartzeko ahaleginean dabilelako.

Begiluze mota hau falta da gure buruzagien artean. Egia da presazko gaien zurrunbiloa indartsua dela eta zurrupatu egiten dituela borondate asko. Baina egia da, era berean, noraezean gaudela eta, ibili gabiltzan arren, ez dakigula garbi inora ote goazen edo biribilean itzulika ari garen.

Politikan erabiltzen ditugun jarrera, molde, berba eta ekimenak zaharrak dira, zaharkituak. Aspaldi darabilgu motxila bera, antzinako tresnez betea, baina ez digu balio bidean aurrera egiteko. Basoan galduta gaude.

Has gaitezen berriro hausnartzen: ‘nor gara gu?’, ‘zer gara gu?’. Eta gero: ‘zer izan nahi dugu?’, ‘nola izan gaitezke?’, ‘zer egin izan gaitezen?’. Galdera xumeak dirudite, baina ez dugu erantzunik.

Begirada jaso dezagun, urrunera ikusteko. Begiluzeak behar dira.

Aurreko asteko *Piperrautsa*-n jartzen zuen: *Blair-ek adiskideak egin baditzake, zergatik ez nik Euskadin?* Eta jarri behar zuen: *Blair adiskideak Ulsterren egin badezake, zergatik ez nik Euskadin?* GOIENKARIA egiten dugunon hutsa izan zen, ez zutabearen egileak, Mikel Irizarrek, egindakoa.

MIKEL IRIZAR

Bada konpontzeko garaia




Zure botoa

ARALAR